Ondoren, J. Haritschelhar euskaltzainburuak ematen du bere hitzaldia. Adierazten du azken urteotan gizon bat ohoretzen duela Euskaltzaindiak, hala nola 1990ean Larramendi Urtea izendatu zuela, 1991ean L.L. Bonaparte printzearen Urtea eta 1992an Oihenart Urtea. Bestalde nola zortzi unibertsitatetako ikerlek, hots, Paris, Nanterre, Toulouse, Bordele, Pau, Euskal Herriko, Deustu eta Madrilgo UNEDekoek. Azaltzen du nola Biltzar honen hasieran egoteko azken ordurarte etortzekoa zela F. Bayrou Pirineo Atlantikako Kontseilu Orokorraren presidentea, baina bezperako erreferenduma dela eta UDFko idazkari nagusia delarik, Parisen gelditu beharra izan duela, nahiz eta hemen izpirituz egon eta baita Euskaltzaindia Pauen Kontseilu Orokorrean hartzeko asmoa duen, Akademiaren nortasuna aitortuz. Azaltzen du Pabeko prefeta eta Oloroe eta Baionako suprefetak ezin dutela agertu, hauteskunde aurreko lege erreserban daudelako. F. Dubosq Zuberoako Sindikataren burua ere ez, bozetan senatore aurkezten delako. Beste Iparraldeko zenbait agintariren aipamena egiten du. Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren telegrama irakurtzen du jarraian eta Pedro Ramos eta M.^a Jesús Aranburu Araba eta Gipuzkoako kultura diputatuen ezin etorria. Aitortzen du bereziki Lougarot auzapezaren harrera. Azkenik Euskaltzaindia zer den azaltzen du, nola 1918an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta

Nafarroako diputazioek sortu zuten, nola 1976an Espainiak Erret Dekretu bidez ofizialtasuna eman zion eta Iparralderako Paristik etorriko den esperantza. Euskararen standarizazioaz zer lan egiten ari den orokorki eta baita ere batzordeen bidez programa nagusiak zehazten ditu bilduen jakingarri, hots. hiztegegintzan, OEH; dialektologian, EHHA; gramatikan, onomastikan eta literaturan.

Eta honela Oihenarten IV. mendeurrenkari, XII. Biltzarraren hasiera emanez, amaitzen da agerizko bilkura hau.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Jose Luis Lizundia
idazkariordea

1992.10.30

Donostian, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, 1992ko urriaren hogeita hamarrean egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarrak eta erditan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea, J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, P. Goenaga Gramatika batzordeko idazkaria eta X. Kintana, urgazleak, dagozkien gaietan.

F. Ondarra, Tx. Peillen eta P. Salaburu euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Uztaila eta iraileko batzar-agiriak onartu dira.

J.M. Satrustegik zorionak eman dizkie batzartuei aditegiari buruz irailean hartutako erabaki garrantzitsua hainbesteko adostasunez hartu izanagatik. Euskaltzaindiaren Arautegia erabaki berriari lehenbaitlehen egokitzea eskatu du, besteak beste, hamaikagarren artikulua idazkariari egozten dion arduraren-erantzunkizuna beste era batera bideratzea erabaki baita.

I. BARNE GAIAK

Euskaltzaindiaren sorrerako 75. urteurrena. Datorren urtean egin gogo den ospakizunari buruzko erabakia gaur bertan hartu behar dela, esan du idazkariordeak, 1993ko aurrekontuak berehala prestatu behar baitira. Hasteko, aski da urtarileko Euskaltzaindiaren batzarrean, Bilbon egitea. Gero udazkenetik aurrera antolatuko diren ekintzen egutegia finkatu beharra dago eta datorren abenduaren 18-rako bidaliko dituzte batzordeburuek euren oharrak

Kanpo izendapenak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzarekin urtero antolatu ohi dituen Literatura-Sarien epaimahairako ordezkariak izendatu dira.

“Txomin Agirre” eleberri sarirako bederatzi lan jaso dira eta honako jaun hauek epaituko dituzte: Xabier Gereño, Felipe Juaristi eta Arantza Urretabizkaia.

“Toribio Altzaga” sarira hamaika antzerki iritsi dira. Daniel Landart, Patri Urkizu eta Eugenio Arozena izango dira epaimahaikideak.

“Arrese y Beitia” sarira hamar poema sail etorri dira. Bitoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona eta Mikel Lasa izango dira epaile.

“Mikel Zarate” sariak zazpi saio ditu aurrean, eta epaimahaikoak, Andolin Eugazitza, Adolfo Arejita eta Alfonso Irigoien izango dira.

Denbora berean “Resurrección María de Azkue” idazle gazteendako sariko epaimahaian legezkeen izenak ere eman dira: José Antonio Retolaza, Karmelo Etxenagusia eta Juan Luis Goikoetxea.

Gazteentzako I. Sketch lehiaketa antolatu du Euskadiko Kutxak, eta epaimahairako ordezkaria izendatu behar da. Euskara zuzen erabili eta istorio bat ongien eszenifikatzen duten ikasgelei eskainitako saria da. E. Knörr arduratuko da eta ezinean J.M. Vélez Mendizábal izango du ordezkaria.

1993ko aurrekontuak

Datorren urteko aurrekontuen azalpena egin du diruzainak. Kontabilitateko programa beste sistema batera aldatu behar izan dela esan du. Orain arte izandako hartu-emanen ondoren izugarrizko murrizketa proposatzen dute agintek, nahiz era desberdinean erantzun erakunde bakoitzak.

Diru laguntzen beharakada, Euskaltzaindiaren beharrak asko gehitu diren une batean gertatu da, hala-nola zazpi bekadun berri, egoitzako gastuak eta atezaina ere Euskaltzaindiaren kontuetan sartu beharra, langilegoaren soldata igotea, Euskara Batuaren Hiztegia eta abar luzea. 1992.eko aurrekontuetan, bestalde, 56 milioi gutxiago jaso du Euskaltzaindiak aginteengandik.

Arazo larri honen aurrean zenbait atal murriztu dira, baina handia da halere geratzen den zuloa. Batzorde Teknikoarekin bilduko dira lehenik diruzaintzakoak txosten ekonomikoa aurkeztuz.

Erakundeek urte amaieran izan ohi dituzten zenbait ataletako soberakinak aipatu dira. J.L. Lizundiak Bizkaiko diru kopuruen berri eman du adibidez.

Jarraipen Batzordeak agintarien aurrean arrazoi hauek erabil ditzan eskatu du diruzainak. E. Knörrek bere laguntza eskaini du Arabako agintariekin gestioaren bat egiteko.

Argitarapenak aipatu dira gero, hitzartutako laguntzak ez direla beti eskuratu azpimarratuz; diru kopuru handia dagoela jokoan eta zenbait liburu plazaratzea gerorako utzi beharko dela esan da. Ikerlanak ez argitaratzekotan bere balioa galtzen du. Liburuaren salmentarako bide berriak eratzeari ere aipatu da, Filologia-ko ikasleei aurkeztuz edo prentsa erabiliz. Etekina txikia izango litzakeela erantzun zaie, bete beharra den zuloaren aldean.

Nola nahi ere Euskaltzaindia ezin da erakundeez landa diru eskean ibili.

Euskaltzaindiak 1993ko aurrekontu hau onartu du eta beharrezkoa ikusten du.

Eskuarteko gaiak

Euskal Itzultzaile Zuzentzaile ta Interpretarien Elkarteko gutun bat jaso da, *senez* aldizkarian, Euskaltzaindiak ematen dituen arau eta gomendioak argitaratzeko baimena eskatzen. Elkarrizketa baten ondoren, baimena ematea erabaki da, behar den moduan iturria aipatuz.

Euskararen Legea zertxoren bat aldatu nahi da Nafarroako Parlamentuan. Hizkuntzarekiko legeak sortu dituen hiru eremuak bitartzea proposatzen da, eta edozein udalek zinegotzien gehiengoz udalerria euskal eremukotzat har dezakeela maila honetako eskubide guzrien baliagarri. Euskaltzaindiak talde politikoei eskari honen alde joka dezaten eskatuz, gutun edo agerpenen bat igortzea proposatu dute aurkezleek.

Europako hizkuntzen karta gogoarazi du euskaltzainburuak. Esan du idatzi diola Errepublikako presidenteari galdeginez Frantziak sina dezan, eta kopia bat igorri zaie gai horretaz arduratzen diren ministroei.

II. AKADEMIA GAIAK

Euskaltzaindiaren *Gramatika laburra* aztertzeko hilabete baten epea eskatu du E. Knörrek. Ez dela laburpen hutsa esan da, aldaketarik ere badagoela. A. Irigoienek oharren bat egin dio testuari idatziz, eta ongi ikusten du epea luzatzea. X. Kintanak dio orain jakin duela zirriborro horren berri, eta zergatik ez zaien banatu laguntzaileei. Eskubide hori aldarrikatzen du beretzat. Gastuen arazoa dago alde batetik urgazle guztiei bidaltzeko, eta aurreko Gramatikaren liburuak ere nolabaiteko onespena bazutela, esan du P. Goenagak.

Hilabeteko epea luzatzea onartu da. Gramatika batzordeak erabaki beza, bestalde, hitzaurrea, izen aurkibidea eta bibliografia nork egingo dituen.

Euskal Telebistako zuzendaria den Amatiñok jakin nahi du, X. Gereñok berari proposatutako *hitano* adizkera bikoizketa-lanetan ez erabiltzea, ideia zuzena ote den eta Euskaltzaindiak begi onez kusiko ote lukeen.

Ez da hain ezinezkoa hika mintzatzen ikastea, eta Euskaltzaindiarentzat galtze bat dela *hitanoa* baztertea, erantzungo zaio.

Euskara Batuko batzordeak *usain/usai*, *arrain/arra* bezala *-ain/-ai* bukaera duten hitzak bateratzea proposatu du beti *-ain* forma erabiltzea gomendatuz. Aldeko iritzia agertu dute X. Diharce, E. Etxezarreta, X. Gereño, X. Kintana, E. Knörr eta J. San Martin jaunek. J.M. Satrustegik ez du ongi ikusten lehen batasunaren hiztegian hartutako erabakiak berritzen hastea, hainbat gai dagoelarik inoiz eraba-

ki gabe. Eztabaidan esan da badirela adibidetzat sartu behar liratekeen beste hitz batzuk ere.

Batzordearen proposamena onartu da. Idazketa berria egingo da esandako oharren arabera.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZAR OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, 1992.eko urriaren 30ean, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria eta J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzainak; J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa; M. Atxaga, R. Badiola, J.M. Etxebarria, P. Goenaga, X. Kintana, M.^a P. Lasarte, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta urgazleak; Jose Migel Zumalaberen alarguntsa eta seme-alabak ere bertan dira, espreski gonbidaturik.

Goizeko bilkuraren berri ematen du lehendabizi J.M. Satrustegi idazkariak, honela labur bil daitezkeelarik gaiak: Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren ildo nagusiez proposamenak abenduko batzarrerarte aurkez daitezkeela; Bilbao Bizkaia Kutxaren babesez antolatzen diren eleberrri, antzerki, olerki eta saio sariketarako epaimahaikideak izendatu direla eta baita Lankide Aurrezki Kutxak antolatzen duen I. Sketch lehiaketa erabakitzeke ordezkarria ere; 1993rako aurrekontuak onartu dira; Euskararen Legea zerbait aldatu nahi dela Nafarroako Foru Parlamentuan eta Euskaltzaindiak talde politiko guztiei asmo horren alde joka dezaten eskatzeko proposamena onartu da; Errepublikako Presidenteari Frantziak Europako hizkuntzen karta sina dezala egindako gutunaren kontu eman da; *hitanoa* baztertzea galtze bat dela erantzungo zaio Euskal Telebistari; *usain/usai, arrain/ arrai* bezala *-ain/-ai* bukaera duten hitzetan *-ain* forma erabiltzea gomendatzea erabaki da.

Dagozkien batzordeen azalpena. E. Knörr batzordeburuaren aginduz, J.L. Lizundia batzorde idazkariak Exonomastikaz egin berri den jardunaldiaren kontu eman du. Bai exotoponimiaz eta bai exoantroponimiaz zeintzu txosten aurkeztu, zer egitasmo eta ildo nagusi aztertu ziren eta nola abenduaren 7an bigarren jardunaldi bat Durangon egingo den, bertara ardura duten erakunde, elkarte edo lantaldeen ordezkariek gonbidatuko direla azaldu du.

P. Altuna Gramatika batzordeburuak Euskaltzaindiaren *Gramatika laburra* liburukia nola dagoen azaldu du, euskaltzainei aztertzeke hilabeteko epea luzatu zaiela goizeko bilkuran esanez. Aipatu gramatika, uste zen epe barruan ezin izango da argitaratu.

Jose Migel Zumalabe Mendibururen hil berri txostena irakurtzen du Juan Mari Lekuona euskaltzain buruordeak. Txostengilearen esanetan Jose Migel euskararen bultzatzaile sutsua izan zen hizkuntzaz kezkatua eta beraren inguruoak

ere arduratuak izan zitezen nahi izaten zuen. Euskaltzaindiaren lanetan ere gogotsu parte hartu zuen hala nola “Zortzi urte arteko ikastola hiztegia”, “Etxegintza hiztegia” eta abar. Haren idazlanak zenbait aldizkaritan irakur daitezke.

“Satan, deaburua eta euskara. Mito baten inguruan” izeneko txostena aurkezten du Juan San Martin euskaltzainak. Txostengileak euskal literaturan zehar idatziriko zenbait testu gogora ditu, hots, P. Lafitte, R.M. Azkue, Aizkibel, Serapio Mugika, Iztueta, J.M. Barandiaran, ... Jarraian euskara ikastearen zailtasunak aipatu ditu “deabruak askotan nahi izan du ikastea, baina zenbait berba baino ez ditu ikasi, eta hauek ikasi bezain azkar ahantzi ditu”. Aipamen anitzen ondoren elkarrizketa luze eta aberatsa gertatu da bilduen artean.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
idazkaria

1992.11.27

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan egin dute euskaltzain osoek 1992ko azaroaren 27an hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira, J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea eta, akademi gaietan X. Kintana, urgazleak.

X. Diharce, F. Ondarra eta P. Salaburu euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Urriko batzar-agiria onartu da.

I. BARNEGAIAK

Nafarroako ordezkaria den J.M. Satrustegik aditzera eman du, Euskaltzaindiaren une honetako ekonomi egoera larria ikusita, Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiarekin egonik, Nafarroako Gobernua prest dagoela P. Yrizarrek Foru Komunitatez horretako aditzari buruz eginak dituen lau liburukiak oso-osorik ordaintzeko. Atseginez jaso da berria.

1993ko batzar-egutegia aurkeztu du idazkariordeak. Bi ospakizun nagusi nabarmentzen dira, hots, Euskaltzaindiaren sorrerako 75. urteurrena, eta Arantzazuko Biltzarraren 25. urteburua, urriaren lehen bi egunetan egingo delarik gertakizun horien oroitzapeneko jardunaldien hastapena.

Urtarrilaren 29an egingo dira Bilbon Euskaltzaindiaren VIII. Barne Jardunaldiak, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatu sortzaileak omenduz. Apirilaren 27an edo 28an 'Araba eta Euskara' erakusketarekin batera egingo da hileroko batzarrea Gasteizen.

Abenduan egingo lirateke Euskaltzaindiaren sorrerako ospakizunen barnean "Hizkuntzen arteko I Jagon Jardunaldiak", beste akademia batzuetako partaide eta Hizkuntza Politikarako arduradunak gonbidatuz. Urteko beste batzarreen aipamena ere egin da, tokia aldakorra gerta daitekeelarik.

Euskaltzainburuak dio, Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorreko burua den Bayrou jaunak Euskaltzaindiarekin biltzeko gogoia agertu diola berriro. Paben ala Baionan egin daiteela esan du. Urtarrilaren 29an Hegoaldeko diputatu nagusiekin biltzea proposatu dio J. Haritschelhar-ek, hango bilera gerorako utziz.

Errepideetako seinaleak behar bezala ezartzeko laguntza eskatu dio Bayrou jaunak, gogotik emango zaiola ihardetsiz euskaltzainburuak.

Eta bere egoitzan bildua denez Euskaltzaindia, Arturo Campion ospetsuaren brontzezko irudia Nafarroako Ordezkaritzatik Bilboko batzar aretora ekarria izan dela, aditza eman die batzartuei idazkariak.

Bilboko Merkataritza Ganbaratik jaso du Euskaltzainburuak Europako Kontseiluak hedapen gutxieneko hizkuntzei buruz egin nahi duen konkurso baten adierazpena. Jordan jaunarekin mintzatu da J. Haritschelhar eta Europa guztirako programa bat nahi lukeelarik, prest agertu da euskaltzainburua euskarari dagokion proiektua burutzeko. Abenduaren 14 arteko epea dago aurreasmo hori aurkezteko. Ez da esana gero onartua izango den.

Euskararen statusa hirukoitza denez, behar bada Euskaltzaindiak egin behar lukeela, dio J. San Martinek, Nafarroako eta Iparraldeko berriak emango dituen norbait ere sartuz. Baliagarria dela eta agertu egin behar dela deialdian.

B. Oihartzabalen ustez, ez da denentzat proiektu bat, hizkuntza batentzat baizik. Euskaltzaindia solaskide bezala agertzea komendi da.

Eskaintza bat egitea erabaki da, Euskaltzaindia prest dagoela esanez, euskarari dagokionean lanerako eskatzen diren baliapideak emateko.

Lehenbaitlehen eskatu behar da inpreseria eta bete, abenduaren hamalaurako igorri nahi bada.

Kanpo izendapenak

Idazle gazteentzat antolatutako narrazio eta olerkien sariko epaimahaikideak izendatu dira, hots, Xabier Alzibar, Juan Luis Goikoetxea eta, berari esan ez zaionarren, Karlos Otegi. Eragozpenik balu, Bitor Urangak ordezkatu du.

Diruzaintza

Datorren urteko aurrekontuak Mari Karmen Garmendiari bidaliak direla eta ez dela erantzunik jaso, esan du diruzainak. Jarraipen Batzordeak hartuko du dirulaguntzen azken erabakia, Euskaltzaindiko partaideek botorik ez dutelarik.

Eragile teknikaria izendatzeko lanpostuaren xehetasunak aurkeztu ditu gero J.A. Arana Martijak. Bost ataletan banatu ditu eginkizunak: I. Harremanak. II. Egitasmoak. III. Batzordeen arteko koordinaketa tekniko-akademikoaren jarraipena. IV. Idazlanak argitaratzea eta, V. Biltzar eta Jardunaldiak.

Ez ote duen idazkari bat beharko, esan da. Oraingoz bera arduratuko dela, erantzun zaio. Diru aldetik eragozpenak daudela alegia. Geroak esango du noraino irits daitekeen.

Azken atalean “idazkari nahiz kide” dioen tokian bigarren hitza baztertu da.

Euskaltzaindiaren erabakiak ez dutela zabalkunde onik-eta, teknikariaren egin-kizunei banaketaren gehitzea komenigarri ikusten da. Horrela onartu da aurkeztutako proposamena.

II. AKADEMI GAIAK

Euskara Batuko batzordea. Aurreko batzarrean betekizun geratutako *-zain/-zai* eta antzekoen txostena berridatzia da, baina azken orduko atzerapena izan du eta ez da gaur iritsi. Datorren hileko batzarrean ikusiko da beraz gai hau.

Gramatika laburra. Proposatutako testuari oharrak egin dizkiotenak, jaun hauek izan dira: A. Irigoien, X. Kintana, E. Knörr eta F. Krutwig.

Euskara idatziaren lekukotasuna baliagarria dela noski, esan du X. Kintanak, baina mintzatuaren lekukotasunik ere badagoela. Oharretako zenbait adibide aipatu da gero. Gramatika batzordeak ohar guziak bildu ondoren laburpena egingo du.

EMAKUNDEren txostena

Miren Azkaratek azaldu du *Emakunde Euskal Erakundeak* bidalitako txostenaren edukia. UNESCOren gomendioen ildotik, hizkuntzan emakumearen irudia gutxien edo baztertzan duten hitzak eta esaerak aldatu nahi direla euskaran, aditzera eman du. Hizkuntzaren aldetik ez dago txostenean erabilitako gaietan eragozpenik. Horrela jakinaraziko zaio Erakundeari.

Batzordeen berri

HIZTEGI BATUA. Batzorde honek lanean jarraitzen duela esan du I. Sarasolak, ohizko bilkurak hileroko eginez. Orain arte onartutako erabakien ildotik darma bere lana. Batzordearen lehen kontuerrendatzea dela-eta, oharrak datorren urtarriaren hogeirako igortzea eskatzen zaie euskaltzainei.

Jagon Saila eta *Euskalkien Ikerketarako* batzordea bildu zirela atzo, jakinarazi du J.L. Lizundiak. Bigarren lantalde honetan Iparraldeko partaidetzarik baden galdetu du P. Charritton euskaltzainak. B. Oihartzabal barne dela erantzun zaio.

Exonomastikako lantaldea urriaren 23an bildu zen Bilbon. Onomastika batzordeideekin batera honako elkarteetako arduradunak ere egon ziren: Klasikoak S.A., Lur eta Eusenor entziklopediak, UZEI, Itzultzaileen elkarte, Elhuyar, EAEE/IVAP, EITB, Liturgi batzordea, Biblia itzultzaileak, bikoiztaileak eta *Egun-*

karia. Geografiako izenak sailkatu ondoren pertsona izenekin hasi nahi da. Batzarrea interesgarria izan zela adierazi du J.L. Lizundiak. Lantalde hau bere osotasunean gehitu zaio batzordeari.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZAR OROKORRA

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 1992.eko azaroaren 27an, egin du Euskaltzaindiak Miren Azkarateren sarrera dela eta batzar irekia. Arratsaldeko 4 t'erdietan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkari eta J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna. M. Azkarate, P. Charrington, J.L. Davant, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, Tx. Peillen. J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante euskaltzainak; J.A. Aduriz, J.M. Aranalde, P. Arregi, M. Atxaga, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, F. Barrenenagoa, J.A. Etxebarria, B. Gandiaga, X. Gereño, P. Goenaga, J.L. Goikoetxea, X. Kintana, J. Kortazar, J.M. Larrarte, M.P. Lasarte, J.L. Lizundia, J.A. Mujika, J. Oleaga, R.M. Pagola, K. Rotaetxe, P. Uribarren, P. Urkizu eta J.J. Zearreta urgazleak; X. Diharce, F. Ondarra eta P. Salaburu euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Mahaipuruan eseri dira Zuzendaritzako lau euskaltzainak, Patxi Altuna euskaltzain erantzulea, Miren Azkarate anderearentzat esarleku bat libre utzi delarik. Eskuin aldeko lehen iladan daude: Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia, M.^a Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko kulturako foru diputatua, Txaro Arteaga *Emakunde* erakundeko zuzendaria, Miren Azkarateren senarra, alabak eta familiakoak bestaldeko lehen iladan eseri dira. Beste zenbait ordezkeri, bai unibertsitateko eta bai kultur elkarteetako ere aurkitzen dira, euskaltzale andana batekin batera.

Hasteko J. Haritschelhar euskaltzainburuak bere agurra egiten du. Miren Azkarate euskaltzain berria goraiapatuz, Euskaltzaindiaren egoitzan sarrera egiten duen aurrena dela ete baita lehen emakumea ere. Hitzaldiñoa bukatu ondoren, Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakariak bere ezin etorria azalduz batera, Miren Azkarateretik bere atxikimendua agertzen dion gutuna irakurtzen du euskaltzainburuak.

Jarraian, J. M. Satrustegi idazkariak Arautegi eta Barne-Erregelei dagozkien artikulua irakurtzen ditu, euskaltzain berri baten sarrera hitzaldia nola arautzen den argituz.

Ondoren, bi euskaltzain joaten dira Miren Azkarateren bila, hain zuzen Juan San Martin eta Beñat Oihartzabal.

Miren Azkarate euskaltzain oso berria sartzan da aretoan eta sarrera hitzaldia egiten du. Hasteko euskararen inguruko lan bikainetan aritu diren emakumeak aipatu ditu, hala nola, Catalina Elizegi, Julene Azpeitia, Tene Mujika, Rosa de Bustinza eta abar luze bat. "Merituak bai ugari guztiak —adierazi zuen— baina garaia ez zen izan egokia. Nik alde izan dudana, haiek zeharo kontra. Hala nola

ikusten dudan lehen emakumea izatearen kontu hori". Miren Azkaratek Joxe Migel Barandiaranen bizitza eta lanak ekarri ditu guztien gogoetara. Barandiaranek euskaraz idatzitakoen artean, ikerlanak, hitzaldiak, besteen idatziei eginiko hitzaurreak eta aldizkari eta egunkarietan idatzitakoak aipatu ditu. "Testu hauek aztertuz, argi ikusten da nola aldatu den Barandiaranen euskara garaia-aren eta inguruaren eraginez". "Bada, ordea, hasieratik azkenera arte aldatzen ez den zerbati, euskal egitura jatorren erabilera". "Baina Joxe Migel Barandiaran euskal idazlearen alderdiren bat azpimarratzekotan —adierazi du— terminologo edo nahia-go bada terminogilearena aukeratuko nuke. Gaur bezalaxe, eratorpena eta hitz-elkarketetara jo zuen gehienetan behar zituen terminoak eratzeko, mailegucui ihes eginez eta euskal hitzen altxorretik sortuaz hitz teknikoak". Joxe Migel Barandiaranen euskara bere lan alorretara egokitzeko ahaleginak ere ekarri ditu gogora.

Patxi Altuna euskaltzainak ematen dio erantzuna, Miren Azkarateren bizitza eta batez ere ikasketa eta ikerlanez arituz. Deustuko Unibertsitateak EUTGn duen campusean hasi eta burutu zuen filologia erromaniko lizentziatura, "-n edo -z atzizkia daramaten denborazko izen sintagmak Axularrengan" tesinarekin. Jarraian Illinoisko Unibertsitatean sintaxia eta semantika landu zituen. "Hitz Konposatuak Euskaraz" izendun tesiaz lortu zuen doktoradutza. Deustu eta Euskal Herriko unibertsitateetan izan da eta dihardu irakasle. Zehatz mehatz azaldu ditu egindako liburu, artikulua eta txosten, baita ere Kongresu eta Jardunaldi ugarietan izan duen partaidetza.

Erantzunaren ondotik denak zutik J. Haritschelhar euskaltzainburuak euskaltzain agiria luzatzen dio eta Erakundearen domina ezarri. Jarraian, gauza bera egiten dute beste mahaipuruko eta gainerako euskaltzain guztiek.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria

1992.12.18

Donostian, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, 1992ko abenduaren 18an, goizeko 10etan, egin dute euskaltzain osoek euren hileroko batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea, J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, urgazleak.

F. Ondarra, J. San Martin eta P. Zabaletak ezin etorria adierazi dute.

Azken batzarreko agiria onartu da.

Hans Günter Mukarovsky jauna hil dela aditzera eman da. Alarguntsari dolumina agertuko zaio.

Gerardo Lopez de Guereñu arabarraren hil berria eman du E. Knörr-ek. Euskaltzain ohorezkoa zenez, datorren bileran egingo da bere merezimenduen aipamena.

I. BARNEGAIK

Egungo batzar-deiak barnegaietan dakarren lehenbiziko puntua exonomastikako lantaldeari dagokiona da. Azkeneko batzarrean erabakitakoa zehaztuz, Onomastika batzordearen eta Euskaltzaindiko ohargileen gastuak bakarrik ordainduko dira. Besteena bakoitzak berea ordainduko du. Egund osoko jardunetan Euskaltzaindiaren kontu izango da denen bazkaria. Horrela jakinaraziko zaie ordezkariak igortzen dituzten elkartei.

Muxika-Ariatzako "Garriko" bertso eskolan S. Onaindia eta A. Irigoienek izango dute abenduaren 27an omenaldi bat eta antolatzaileen gomita jaso da. Zorionak ematen zaizkie biei, eta J.A. Arana Martija joango da Euskaltzaindiaren izenean.

Luxemburgeko Atlas izenburua daraman elkarteak, Euskaltzaindia jadanik atlasgintzan ari dela jakinik, erakundearen xehetasunak eta informazioa gaiari buruz, eskatzen ditu. Erantzungo zaie.

Azaroko batzarrean erabilitako Europako hizkuntza gutxienduen arazoaz dei egin zen telefonoz Bruselara. Erantzuna izan zen, Europako hizkuntza txiki guztien ikerketa zela. Gero informaziorik eskatuko balute euskarari buruz, hori besterik da.

Diruzaintza

Jarraipen Batzordeko talde teknikoarekin bildu dira ekonomi arduradunak. Aurreko hamahiru milioi murriztuak eskuratu arren, bitarteko kreditua eskatu behardo da, diru hori atzeratuko baita. Onartu da.

Kargudunen eginkizunak zehazten dituen notario-agiriak ez du esaten ahalmen hori nork duen. Diruzainak dirumailegu hori eskatzeko eta agiriak sinatzeko baimena eskatu da, eta eman zaio.

P. Yrizarren argitarapenaz esan du J.A. Arana Martijak, prest zeudela Nafarroako aditzaren lau liburukiak, baina Euskaltzaindiak ez zuela argitaratzeko dirurik. Orain Nafarroako Gobernuak argitaratzen duenez, uste du abenduaren 28rako plazara daitekeela liburuki bat. Egina da inprentaren hautapena. Iruñean batzarrea egingo du Euskaltzaindiak aurkezpenarekin batera. Merez duen ospea eman nahi dio gertakizunari Euskararen Politikako Zuzendaritza Nagusiak.

Oihenarten mendeurreneko ospakizunak zein ongi pasatu diren azpimarratu du J. Haritschelhar-ek. Akitaniako Kulturgaien Zuzendaritzak, Bordeleko Unibertsitateak eta Kontseilu Orokorrak emandako dirulaguntzak aipatu ditu. Euskalerriko Unibertsitatearen bultzada izan da noski garrantzitsuena behar bezala jokatu baidute arduradunek, eta eskerrak eman zaizkie. Aspaldiko argitarapen baten ondorioz gelditutako arazoa ere konpondurik geratu da EHUREkin.

II. AKADEMI GAIAK

Azken zuzenketak egin ondoren, *usain/usai*, *arrain/arra*, *zain/zai* eta antzeko amaiera duten hitzei buruzko testua aurkeztu du Euskara Batuko batzordeak. Miren Azkarate eta Ambrosi Zatarainen oharrak jaso dira. Proposatutako eran onartu da batzordearen lana.

Datorren gaia, *zor/nortzuk*, *zer/zertzuk*, *zein/zeintzuk*, ondoko egunetan banatuko da hurrengo batzar batean ikusteko.

Datorren urteko ospakizunei buruz hitzegin da gero. Axularren *Gero* argitaratu zeneko 350 urteurrena dela ere esan da, baina horrelako gertakizunen mendeurrenak bakarrik ospatu ohi ditu Euskaltzaindiak.

Urtarrileko batzarrari dagokionez Euskaltzaindiaren bultzatzaile izan ziren bizkaitarren omenaldiarekin emango zaio hasiera urteari. Miren Azkaratek *Hiztegi Batuko* zerrenda aipatu du. Urtarrilaren hogeirako bidali behar dira oharrak.

Hitano arazoa ere mahai gainean dagoenez, Barne Jardunaldietan aztertuko da alokutiboa.

P. Salaburuk *Gramatika laburra* gaietan ere sartzea proposatu du. Denborarik balego ikusiko litzateke.

Ospakizun nagusiak, halere, udazkenetik aurrera egingo direnak izango dira. 1993.ko urritik 1994.eko urrira lan asko egongo denez egutegia zehaztu behar da aurretik.

Batzordeburuekin mintzatu ondoren, hauen asmoak agertzen hasiak dira.

LEF batzordearen proposamena egin du Miren Azkaratek. Euskal atzizkien azterketa urte honen amaierarako egina izango denez, zenbait atzizkik ezagutu duten desbiderapen eta ugaltzea azter dezaketela kongresurako, esan du. Horrelako atzizki eztabaidagarri batzuen zerrenda ipini du adibidetzat.

J.M. Lekuonak aurkeztu du Literatura batzordearen proposamen txostena, honako helburu hauekin: Metrikaren gutxieneko arautegi baturantz mailan, Hiztegiaren izendapena eta zenbait kontzeptu berezi euskal ikuspegitik finkatzea.

P. Altunak Gramatika batzordearen izenean esan du, arazo desberdinak aipatu direla eta abenduaren 23ko bileran erabakiko duela batzordeak 75.urteurreneko kongresura eramango den egitaraua.

Onomastika batzordearen proposamena E. Knörrek egin du. Euskal ondarekoak ez diren pertsona eta leku-izenen batzea izango litzateke kongresurako gaia. Eginkizun hau jorratzen hasia da batzordea eta horretarako bi lantalde eratzea proposatu zen azken bilkuran.

Euskaltzain batek bere aldetik egin nahi balu txosten bat, eskubidea du.

1994.eko udazkenean egingo bada kongresua, 1994.eko otsailerako jaso behar dira txostenak.

Azentua aipatu du L. Villasantek. Ipar-Ameriketara den Hualde jaunari txosten bat eskatzea proposatu du P. Altunak eta onartu da eskaria.

Datorren otsailetik aurrera ez da beste gairik hartuko. Euskaltzaindiak eska ditzake txostenak.

Donemiliagan egindako kongresuaren berri eman du, azkenik, Miren Azkaratek, orotariko lanak aurkeztu direla esanez, ahulak eta garrantzitsuak, terminaletako programei buruz. Kopia eskatu eta jaso du. Euskaltzaindiari gehiago komeni zaiola bere kasa lana egitea, esan du.

Eta besterik gabe bukatu da deialdi honetako batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi
idazkaria

Bilkura berezia

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan 1992.eko abenduaren 18an, eguerdiko ordubetetan, bildu dira euskaltzain oso hauek: P. Altuna, J.A. Arana Martija, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, J. Haritschelhar, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J.M. Lekuona, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, J.M. Satrustegi eta L. Villasante. Laguntzaile legez J.L. Lizundia idazkariordea.

Euskaltzainburuaren aginduz, J.L. Lizundia idazkariordeak irakurtzen ditu Euskaltzaindiko Zuzendaritzako kargu hautatzerako Arautegiaren 28, 29, 30, 31 eta 32. artikulua eta Barne-Erregelen 48. eta 49. artikulua.

J. Haritschelhar euskaltzainburuaren proposamenez, adineko mahaipurua Euskaltzaindian zaharrena eta gazteena direnekin, hots, F. Krutwig eta M. Azkarate jartzea proposatzen du, bera, J.M. Lekuona buruordea eta J.M. Satrustegi idazkaria mahaitik aldentzen direlarik. F. Krutwig jaunak buru eta M. Azkarate andreak idazkari gisa egiten dute.

Ezin etorria adierazten dute, ahala emanez: F. Ondarrak, J.M. Satrustegiri; J. San Martinek, J. Haritschelharri eta P. Zabaletak, J.A. Arana Martijari.

Lehendabizi euskaltzainburutzarako bozketa egiten da. J. Haritschelhar hautagai bezala aurkezten da; arau berez denak badira ere, A. Irigoien kargu guztietarako kandidatu edo hautagai aurkezten da. Bozek emaitza hau adierazten dute: J. Haritschelharrek 15 botu, A. Irigoienek 3 botu, M. Azkaratek 1, zuzir 2. Lehen txandan, gehiengo osoz, J. Haritschelhar jauna izanda euskaltzainburu hautatua.

Buruordetzarako J.M. Lekuona eta A. Irigoien aurkezten dira. Bozak: J.M. Lekuonak 12 botu, A. Irigoienek 5, P. Altunak 1, zuzir 3. Gehiengo osoz ez du inork lortzen eta bigarren itzuliak honelako emankizuna adierazten du: J.M. Lekuonak 12 botu, A. Irigoienek 5, P. Charrittonnek 1, P. Altunak 1, zuzir 2. Ondorioz J.M. Lekuona jauna hautatzen da buruorde.

Idazkaritzarako E. Knörr aurkezten da hautagai bezala. A. Irigoienek dio berak J.M. Satrustegiri emango diola botua, honek berak dioenez ohi bezala ez delarik espreski aurkezten. Bozketak honelako emankizuna ematen du: E. Knörrrek 13

botu, J.M. Satrustegik 8 botu. Beraz, lehen txandan, gehiengo osoz, izanda hautatua idazkari E Knörr jauna.

Diruzaintzarako J.A. Arana Martijari galdeturik dio, bera ez dela espreski aurkezten. A. Irigoienek hasieran esan bezala aurkeztutzat agertzen da. Bozak: J.A. Arana Martijak 15 botu, A. Irigoienek 3 botu, zuriz 3. Lehenengo txandan, gehiengo osoz, izanda hautatua diruzain J.A. Arana Martija jauna.

J.M. Satrustegik zorionak ematen dizkio idazkari izendatu berriari, beronek denei eskerrak emanez batera, bere karguaren eskaintza egiten duelarik.

Eta honela bukatzen da bilkura.

* * *

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1992.eko abenduaren 18an, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea eta J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, F. Krutwig, B. Oihartzabal, Tx. Peillen eta L. Villasante euskaltzainak; J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa; J.A. Aduriz, J.A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, J.M. Etxebarria, M.P. Lasarte, J.L. Lizundia, L.M. Mujika, J.K. Odriozola, M. Zalbide eta J.J. Zeareta urgazleak. J.L. Lizundia idazkariordeak egiten du idazkari bezala.

Berriak

Gerardo Lopez de Gereñu euskaltzain ohorezkoaren hil berria ematen du idazkariordeak, E. Knörr euskaltzainak prestatuko duelarik ohizko txostena. Hans Günther von Mukarovsky euskalari austriarraren hil berria ere ematen du.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak joan den ostiralean BBKren egoitzan erakunde honek Euskaltzaindiarekin batera antolatzen dituen urteko literatur lehiaketen berri eman du, hauek izan direlarik: Luis Mari Mujika, Txomin Agirre eleberri saridun *Loitzu herrian dua-partean* lanagatik; Junes Casenave, Toribio Alzaga antzerki saridun *Agota* pastoralagatik; Patxi Ezkiaga, Felipe Arrese Beitia olerki saridun *Komendiaren Jainkoa* lanagatik eta Jose Manuel Odriozola, Mikel Zarate saioko saridun *Soziolinguistikaren atarian* lanagatik. Luis Mari Mujika urgazlea bertan denetik, zorionak ematen dizkio, bilduek txalotzen dutelarik.

Goizeko bilkuren berri

J.L. Lizundia idazkariordeak ematen du, honel labur daitekeelarik: Exonomaстика lan taldearen ibilpideak zehaztu dira; erakundearekiko zenbait ordezkari-tza izendapen egin dira; datorren urteko aurrekontuen arazoez eta Pedro Yrizarren Nafarroako aditzen argitaratze babesez kontu eman du Diruzaintzak; *usai/usain, arrail/arrain, zail/zain* amaiera duten hitzei buruzko aurrekoan erabakitakoaren testua finkatu da. Euskara Batuko batzordearen hurrengo proposamen aztergaia, hots, *nor nahi/nor-nahi/nornahi; nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk* aurkeztu da;

Euskaltzaindiaren 75. urtea dela eta LEF, Literatura Ikerketa, Gramatika eta Onomastika batzordeek prestatzeko asmoa duten aztergaiak azaldu dira, alokutibo eta azentuarenak ere aztertu beharra adierazi delarik; Donemiliaga Kukullan Iberoamerikar Terminologia Kongresuaren berri eman du Miren Azkaratek.

Dagozkien batzordeen azalpena

Exonomastikaren II. jardunaldia, hil honen 7an, Durangoko Udaletxean egindakoaren berri ematen du J.L. Lizundia Onomastika batzorde idazkari denak. Onomastika batzordeari atxikirik zeintzuk erakunde edo elkarteren ordezkari egon ziren eta nola goizuko euskaltzainen batzarrean, langintza honen prozedura onartu den azaltzen du.

J.M. Lekuona buruorde eta Literatura batzordeburuak ematen du, hil honen 11n, egoitzan, egindako bilera, zeinetan Euskaltzaindia sortu zeneko 75. urtemuga dela eta "Literatur hiztegi baturantz" izeneko txosten proposamena prestatu eta onartu baitzuten, bere xehetasun nagusiak gehitzen dituelaril.

Tx. Peillen Euskalki Ikerketako azpibatzerde arduradunak ematen du egun eta toki berean egin zen bilkuran aztertutako asmoen berri.

"Zenbait puntutxo Leizarragaren hizkeraz" izeneko txostena irakurtzen du P. Altuna euskaltzainak. Lanean honako puntu hauek ikertu ditu: 1. *Neinde* (ainde, nainte) adizkiaren jatorria; 2. Ahaleraren eta subjuntiboaren arteko lotura; 3. Esan al daitekeen "Iankoanz gai zutan dut konfiantza"; 4. Zuzenak al diren "Aita ene laguna den mutilak jo nau" bezalako perpausak; 5. Oihenarten "Iaincotan bat huts iauretsac" hura ez ote da Oihenart beraren "zuretan hartu" eta Leizarragaren "exenplutan alega"ren antzera ez plurala, ezpada mugagabea?

Jarraian bilduen artean eztabaida onuragarri bat sortzen da.

"Normatibizazioari buruzko zenbait gogoeta" izeneko txostena J.K. Odriozola euskaltzain urgazleak, berak eta Igone Zabala andereak prestatua, irakurtzen du Odriozola jaunak. Lan honetan euskara batuaren oinarri morfologikoak finkatu ziren unetik hona azaldu izan diren normatibizazio-jarrera desberdinak bildu dira; horretarako, sarrera batean zenbait argitarapenen saiatur: Txillardegia (1979), P. Goenaga (1978), Euskaltzaindiaren EGLU delakoak eta hizkuntza maila teknikoaren inguruan egindako beste zenbait lan. Lanaren geroagoko beste hiru sailetan, zenbait kontu morfosintaktiko aztertu dira, kasu bakoitzerako argitarapen horietan esandakoa bilduz eta normatibizazio-lerro horiek apur batez hobeto profilaturik.

Aurrekoan bezala elkarrizketa labur bat izan da.

Eta Gabon Jai eta Urte Berri On opatuz, euskaltzainburuak bilkura amaitutzat ematen du.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. L. Lizundia
idazkariordea

BATZAR-TXOSTENAK

**QUELQUES COMMENTAIRE ET REFLEXIONS AU SUJET DES
"MATERIALES PARA UN DICCIONARIO ETIMOLOGICO DE
LA LENGUA VASCA" (ASJU XXII, 1-2-3, 1988)**

Michel Morvan

On sait bien que tout ce qui touche à l'étymologie est toujours délicat à manier. Quant au comparatisme "généalogique", n'en parlons pas. Est-ce cependant une raison suffisante pour refuser de manière un peu systématique, comme semblent le faire les auteurs des "Materiales...", les rapprochements de termes basques avec ceux des corpus lexicaux de langues lointaines? Cela ne revient-il pas à se fermer d'emblée certaines ouvertures possibles et d'autre part, n'y-a-t-il pas là une volonté inconsciente de perpétuer la tradition qui veut absolument faire du basque une langue complètement isolée dans le monde, *sans parenté*, parvenue jusqu'à nous de manière presque inchangée depuis le paléolithique ouest-européen, depuis l'Homme de Cro-Magnon?

Il est tout à fait possible que cette dernière hypothèse soit la bonne comme il est tout à fait possible qu'elle ne le soit pas. Par conséquent l'attitude de refus systématique qui consiste à rejeter les comparaisons avec d'autres familles de langues, même très éloignées géographiquement du basque ne me paraît pas souhaitable.

Certes les rapprochements fantaisistes ne manquent pas, et il s'avère souvent difficile de voir clair à travers les multiples propositions des uns et des autres. Aussi a-t-on tendance à tout rejeter en bloc. Je me pose d'ailleurs la question de savoir si le fait de mentionner toutes ces propositions et hypothèses d'inégale valeur ne contribue pas à brouiller davantage encore les pistes et à rendre quasiment impossible un choix pour tel ou tel terme étudié. De plus le rejet en bloc constitue un amalgame mettant tout au même niveau. On risque ainsi, au bout d'un certain temps, et faute d'un tri opéré avec nuance et perspicacité, de tourner en rond, et de devoir se contenter d'un dictionnaire étymologique tronqué dont seront éliminés les termes jugés irréductibles et rebelles du fonds purement basque de la langue. On se résignera à ne traiter que des étymologies "relativement faciles" à découvrir, par exemple les nombreux emprunts aux langues latino-romanes ou bien les mots composés et dérivés pas trop déformés, les termes expressifs, etc. Le fonds

basque originel demeure ainsi inaccessible, ce dont ne saurait se satisfaire aucun véritable comparatiste. Il me paraît également contradictoire de prendre position contre les rapprochements lointains et dans le même temps de les citer de manière presque trop exhaustive dans les "Materiales..."

La question prioritaire, à mon avis, est de savoir s'il est préférable d'attendre que l'on ait des certitudes absolues pour une étymologie donnée, auquel cas on risque d'attendre longtemps, voire indéfiniment, ou bien s'il convient d'établir le maximum de comparaisons possibles compte tenu du fait purement statistique que plus on a de rapprochements à sa disposition, plus on a de chances que le bon figure dans le lot. La seconde méthode me semble la meilleure, sous certaines conditions, et compte tenu du fait que nous ne nous trouvons pas dans la même situation que les comparatistes indo-européanistes, pour lesquels la tâche se trouve quelque peu facilitée grâce à l'abondance et à la régularité des correspondances. Trop de comparatistes ont échoué avec le basque pour que l'on s'obstine à vouloir calquer, imiter à tout prix les méthodes des indo-européanistes. Trop de comparatistes ont échoué avec le basque parce qu'ils n'ont pas su faire le tri que j'évoquais à l'instant dans la masse des rapprochements. Le comparatiste doit mettre tout en oeuvre pour opérer ce tri afin de dégager si possible le meilleur rapprochement. Encore faut-il avoir quelque chose à trier! L'attentisme me paraît être en l'occurrence une sorte de défaitisme et de manque d'audace dommageable à la recherche basque dans son ensemble. Entre le manque et l'excès de prudence, il y a un juste milieu accessible à qui veut bien s'en donner la peine.

L'entreprise de A. Tovar et M. Agud est fort louable et représente un travail énorme. Il est dommage qu'un certain parti-pris anti-comparatiste vienne entacher ce travail par ailleurs si utile. Ce parti-pris pousse inconsciemment les auteurs à oublier de voir et rectifier des erreurs même dans le domaine de la reconstruction interne, même lorsqu'il n'y a pas à faire appel à une langue lointaine, car on préfère un emprunt au latin ou au roman plutôt qu'une explication purement basque, l'attention étant trop focalisée sur ces contacts proches. En voici un exemple:

ASJU XXII-2, p. 630:

Hail L'hilera'. Cast. ant. *la hila* 'la hilera' (d'après Corominas) mal descompuesto en *l'ahil-a*.

En aucun cas le terme *hail*, que je n'ai pas trouvé employé isolément mais seulement en composition chez Azkue qui donne *ahil* (L), cf. Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, I, p. 16, ne peut provenir du roman. L'étymologie citée n'a aucune valeur car *hail* n'est rien d'autre qu'une contraction de *haril* que l'on trouvera abondamment chez Lhan-

de (pour *aril* chez Azkue, *op. cit.*, I, p. 65 'ovillo, peloton de fil' ou (B) 'lourdeur d'estomac').

Il est évident que la forme *hail/haril* est dérivée du basque *hari* "fil" par l'adjonction, en apparence, d'un phonème *-l* de liaison donnant des formes verbales comme *arildu* (B, G), *harilgatu* 'pelotonner du fil' (Azkue, *ibid.*) ou des substantifs comme (*h*)*arilgo* (L-ain) "peloton de fil", *harilkeiak* (L-s) 'devanadera, dévidoir', *ariltoki* (B-m-oñ) 'devanadera, dévidoir' (Azkue, *op. cit.*, p. 66), etc.

P. Lhande, pour sa part, donne les deux formes *hail-* et *haril-* qu'il fait provenir de **harira* cité aux pages 397 et 408 de son *Dictionnaire Basque-Français* (Paris, 1926), forme qui n'existe pas. Cf. Lhande, *op. cit.*, p. 397: *hailgako* L "pelote de fil", *hailgatu* BN "pelotonner", *hailgeta* L, BN "dévidoir", *hailgetan* L "en dévidant", *hailgo* L 1) "pelote de fil", 2) "quenouillée", *hailkari* BN "rouet, dévidoir", *hailkatu* S(A) "pelotonner"; p. 408: *harildatu*, *-gatu* (H.) "dévider, mettre du fil en écheveau", *harilgei* L (H.) *-kai* (H.), *-kei* (A.) "dévidoir", *harilgo* (H.), *-ko* (H.) "peloton de fil, *harilizur* (A.) "fil frisé"; p. 412: *harilka* L (a.) "débri de lin que l'on espade", *harilkatsu* L (A.) "fibreuse, filamenteux", *harilkatu* "s'effiloche, effiler", *harilketa* L (H.) "action de dévider", *harilketari* (H.) "qui dévide, s'occupe à dévider".

La forme **hari-ra* dont le second *r* aurait produit le *-l* attendu dans les composés (évolution du type *afari* → *afal-du* "dîner", etc.) n'existant pas, il convient de proposer comme forme première soit un élargissement de *hari* à l'aide d'un phonème épenthétique servant de liaison, soit autre chose. L'hypothèse d'un *-l* de liaison est fort peu vraisemblable en l'occurrence. Le sens de *hail-* < *haril-* étant "pelote ou peloton de fil, ovillo", il apparaît clairement que nous sommes en présence d'une contraction du terme composé *hari-bil* "boule de fil", de *hari* "fil" et *bil* "forme ronde" (*hari-bil* > *haril* > *hail*). Ce composé figure d'ailleurs dans le dictionnaire de Azkue à *aribil* AN, Araq. 'ovillo, peloton de fil' (Azkue, *Dicc.*, I, p. 65). Curieusement la forme *ahil* est présente dans les "Materiales..." à la même page que *hail* et se trouve mise correctement en relation avec *aril* comme le fait Azkue lui-même.

Prenons un autre exemple de focalisation douteuse sur les langues romanes: il s'agit du traitement de l'entrée *agorril* "mois d'août". Les auteurs citent Schuchardt, *RIEV* 8, 74 et Corominas pour qui la désignation de ce mois en basque ainsi que sa base *agor* "sec" ont dû subir l'influence du latin *augustus* et de *agosto* du roman (*ASJU* XXII-1, pp. 289, 309). Il ne me paraît guère utile de faire appel comme Gavel, *RIEV* 12, p. 230s., à une influence du signifiant de *agosto*. Le nom de mois basque *agorril* se comporte d'une manière tout à fait autonome et ce n'est pas non plus *augustus* ou le castillan *agostar* "dessécher" qui sous l'influence de *legor*, *legortu* "sec, sécher" ont pu avoir de manière

décisive un effect créateur aboutissant à *agor*, *agortu* comme le croit Corominas (cf. "Materiales...", *id.*, p. 310 s.v. *agor*, *agorril*).

Un autre problème à poser est celui de la nécessité ou non de traiter quasiment tous les mots basques en commençant par la lettre A et en suivant l'ordre alphabétique. Cette méthode demande beaucoup de temps et le risque de découragement devant l'ampleur de la tâche et les difficultés innombrables qui surviennent n'est pas à négliger. Même si l'on parvient jusqu'à la lettre Z, ce sera au prix de sérieuses coupes sombres dans le corpus. S'il est souhaitable que la publication se fasse malgré tout, il devra être bien clair pour tous les bascologues que des réserves importantes peuvent être émises à l'égard des "Materiales...". En outre, la progression dans l'ordre alphabétique possède un inconvénient de taille: elle ne permet pas les rectifications au fur et à mesure de la réflexion ou des avancées des chercheurs.

Pour ce qui me concerne, je pense qu'il ne faut pas vouloir traiter l'ensemble du lexique basque. Il est encore trop tôt pour cela. J'ai choisi la solution qui consiste à établir un fichier allant dès maintenant de A à Z, fichier que je remplis au fur et à mesure. Il constituera un premier dictionnaire étymologique du basque qui sera pionnier et provisoire. Il ne traitera pas tous les mots, loin s'en faut, mais ne laissera pas de côté ce qui appartient au vocabulaire fondamental et originel de l'euskara comme c'est le cas aujourd'hui. Ce premier dictionnaire étymologique pourra être régulièrement complété et rectifié à chaque nouvelle édition s'il est édité. On n'y fera pas figurer la totalité des hypothèses, c'est-à-dire que celles qui sont vraiment inutiles, sans intérêt ou fausses de toute évidence seront écartées (par exemple, pour reprendre le cas de *hail-*, il est bien clair que l'on ne devra donner qu'une seule solution). De même pourquoi citer Löpeltmann (*EWBS*) lorsqu'il n'y a aucun doute possible sur l'inanité de l'étymologie proposée (*hail* d'une forme primitive **aurillo*, en relation avec le castillan *ovillo*)?

Ce premier dictionnaire étymologique devra aussi être le plus simple possible, accessible à tous publics. A vouloir trop bien faire on a tendance parfois à proposer des ouvrages de plus en plus réservés aux seuls savants, très difficiles, pénibles à lire, comportant trop de données et obligeant l'utilisateur à une gymnastique compliquée et incessante. A cet égard, j'ai quelques craintes concernant les "Materiales..." ou plus exactement le résultat qui pourrait en découler.

L'extrême sophistication de ce dernier peut être rebutante. Un dictionnaire doit être agréable à consulter, le texte ne doit pas être trop serré, trop dense, même pour l'utilisateur érudit.

Examinons maintenant un certain nombre d'entrées des "Materiales..." déjà publiées en commençant par *ASJU*, XXII-1:

Page 262

– A interrogativo.

Que son origine soit expressive ou non, le suffixe *-a* interrogatif n'existe pas seulement en caucasien mais aussi en ouralien. Il convient par conséquent de mentionner les deux. C'est la meilleure comparaison possible. L'argument de Vogt, *BSL* 51, p. 136, qui considère qu'il n'y a pas suffisamment d'éléments de comparaison s'en trouve ainsi très affaibli, comme le montrent les exemples suivants:

Vogoul *-a*, cf. B. Munkácsi/B. Kálmán, *Wogulisches Wörterbuch*, Budapest, 1986, p. 21: *tit xujew-a?* "allons-nous dormir ici?"; *xonxa tox poterti, am-a?* "qui parle ainsi, moi?".

Oudmourte *-a*, cf. P. Domokos, *Le chant floklorique oudmourte, Etudes Finno-Ougriennes*, Paris, 1973, pp. 92-93: *busän minon-dirja tirojän bertni karod med-a?* "partiras-tu vide pour revenir chargée? (Chansons pour appeler les abeilles, p. 92); *turnanu minëmiéd potë-a, muzïe?* "es-tu venue faucher, ma mie?" (Travaux des champs, p. 94).

– A suf. de alativo

La comparaison de R. Lafon, *Word* 7, pp. 232-233 avec des suffixes caucasiens *-a*, vx georg. *-a*, mingr. *-o* me paraît acceptable. On devra toutefois tenir compte également des formes avec vibrante: *-ra(t)*, *-la(t)*, *-rantz*, *-rontz*, *-runtz* et des adlatifs ou directifs ouralo-altaïques: hgr. *-a*, *-e*, mais aussi *-ra*, *-re*, *-rea*; tü. *-rä*, *-ro*; mo. *-ru*, toug. *-la*; vx jap. *-ra*, *-ro*, *-ru* (voir entre autres A. von Gabain, *Alttürkische Grammatik*, Wiesbaden, 1974, p. 90 pour le türk, Ch. Haguenaer, *Origines de la civilisation japonaise*, Paris, 1956, pp. 486-487; la finale *-t* provient d'une forme prototype **-ra-at* et on isole bien un morphème *-ra* adlatif + un morphème *at* que l'on peut trouver seul du reste. Il indique la stabilisation, un repos suivant un mouvement: *etxetik at dago* "il est hors de la maison", cf G. Rebuschi, *Structure de l'énoncé en basque*, Paris, 1984, pp. 159-160-162. La vibrante, même si elle est à l'origine un phonème de liaison euphonique, n'a pas le même comportement dans la déclinaison ou suffixation casuelle basque que le datif en *-r-i* ou le génitif en *-r-e* (*gure* "notre, nos", *zure* "votre, vos" *nire, nere* "mon, ma, mes", mais *en-e* "id."). Elle est probablement fossilisée dans une assez large mesure.

Page 262

Ahaide L, BN, *aide* G, V, AN 'pariente, deudo' < *anai* 'hermano'.

Il ne me paraît pas souhaitable de refuser, en l'état actuel des connaissances, l'hypothèse qui fait dériver ce terme de *aho*, *aha-* (en

composition) “bouche”. Les deux hypothèses *ahaide* < **anaide* et *ahai-de* < **aha-ide* doivent être admises à concurrence égale pour le moment.

Page 267

Aate V, AN, *ahate* L, BN ãhate S (ãhate SNO), *agate* V, *arata*, *arate* V, *areta* V, *ata* V; G, *ate* V, G, AN, etc. ‘pato’.

Etant donné l’étymologie latine bien connue de ce terme (lat. *anatem*) et l’évolution *-n* > *-h*-, il eût été préférable de mettre la forme *ahate* en entrée. Pourquoi ce partis-pris “sudiste”?

Page 268

Abaa V (RS), *abai* V, AN, *abaiko* V (cf. *abatorraze* salac., *abatorrazi* BN, R, salac.), *abao*, *abau* V, *abe* V ‘panal de miel’; *abara-* en *abarauts*, *abauts* V ‘panal desprovisto de miel’ (lit. ‘panal vacío’). Cf. (*a*)*beraska*, *abaraska* (esp. ant. *bresca*) *ezi-*, *abai*, *-ao*, *eziabi*.

Les auteurs des “Materiales...” écrivent pour cette entrée “Parece natural pensar en su relación con lat. *fauus* ‘id.’ (Mich. *BAP* 11, 290 y *FEW* 1, 536); si bien la variedad de formas vascas no se puede reducir fácilmente a un origen común (*REW* 3228), que no puede ser **favare* como proponía Sch. *BuR* 31 (en ital. *fiare*, *fiale*) (cf. esp. *favo*, *habo*)...”.

Le moins que l’on puisse dire, c’est que ce n’est pas si naturel que cela. Même si on admet l’emprunt au latin *favum*, il est impossible que *abaa*, *abai*, *abau*, etc. d’une part et (*a*)*beraska*, *abaraska*, *breska* de l’autre soient rattachables au même étymon. Il y a eu au minimum de très sérieux croisements. La forme *breska* est attestée en occitan et en catalan au sens de “gâteau de cire, rayon de miel” et semble provenir du celtique, notamment du gaulois *brisca* selon L. Alibert, *Dictionnaire occitan-français*, Toulouse, 1966, p. 179.

Page 270

Abakondo V, *abakando* V, G ‘bogavante’ (Homarus vulgaris).

L’étymologie proposée à partir de la forme castillane *lobagante* qui aurait évolué en **obagante* > *abakando* me paraît intéressante et c’est d’ailleurs celle que j’ai également adoptée. Toutefois il convient de souligner le fait que la présence du *-o* final du terme basque demeure bien difficile à expliquer et à justifier. De plus, le suffixe *-(k)ondo*, *-(k)ando* existe en basque avec une valeur de diminutif (cf. P. Lhande,

Dict., p. 581). On sait par ailleurs que le phonème *-k-* sert de liaison intervocalique. Dans le cas présent, il s'insère donc, au moins du point de vue phonétique, de façon parfaite entre *aba-* et *-ondol-ando*. On pourrait alors, s'il ne s'agissait pas d'une déformation de *lobagante*, envisager une étymologie *abo* "bouche" qui fait *aba-* en composition + *k* + *ondolando* "petite", car le homard ou l'écrevisse se caractérisent par leur toute petite bouche. Cette Hypothèse très séduisante (*abo* est justement une forme biscayenne pour "bouche" *aho, ago* ailleurs), possède cependant l'inconvénient suivant: presque tous les crustacés, crabes, etc. et pas seulement le homard, ont une très petite bouche.

Page 304

Ager- 'notorio, público, visible' → *ageri, agiri, agerri*

Ce radical est très fréquent dans l'ancienne toponymie basque avec le sens de "visible (d'une maison, d'une ferme à l'autre). Une hypothèse de J. Gorostiaga (lat. *agger* 'terraplén, dique'), critiquée par Michelena, Zumarraga 3, 67, est signalée, mais on peut s'étonner que le latin *ager* "champ, campagne, contrée, territoire" ne soit pas mentionné alors que ce rapprochement conviendrait mieux (cf. notamment J.B. Orpustan *Toponymie Basque*, Bordeaux, 1990, p. 71).

Pages 305-306

Agin V, G, *hagin* L. BN, S, *hagintze* S 'tejo' (taxus baccata).

Après quelques rapprochements intéressants de Hubschmid avec *aguin* (pinus pomilio) à Salvatierra, et le paléo-sarde **áGINE* > *eni* "if", les auteurs citent Tovar qui fait allusion à une "relation possible avec le français *gui* (peut-être celte)".

Le mot français *gui*, qui ne désigne rien qui ressemble à l'if ou au pin, vient du latin *viscum* "gui" ou "glu" et s'écrit *vist* en ancien français *Les Livres du Roi Modus*, 1360). Il n'y a donc aucun rapport avec (*h*)*agin*.

Page 308

Agogai, ahogai 'boca, apertura, entrada'. "Se citan en Bertoldi *ZRPh* 57, 142, al relacionar este con *agoga* (en Plinio 'arroyo, corriente de agua?'), y considerarlos como ibér. (J. Whatmough *DAG* 432s). El mismo Bertoldi *La Parola del Passato* 8 (1953), 413 trae de nuevo *agogae*, de Plinio 33, 69 y 75. cf. *hago(a)*. Corominas no ve dónde están atestiguados *agogai, ahogai* y duda de su existencia".

Qu'ils existent ou non, on peut s'étonner ici que personne n'ait pensé simplement à partir de la base *aho, ago* "bouche" pour expliquer ces termes!

Page 308

Agel V 'fofo, hombre de poca energía'; *arol* V 'fofo, hinchado, poroso', G 'endeble'.

On pourrait peut-être tenter de rapprocher ce terme de *ahul* "faible"?

ASJU XXII-2:

Page 627

Aidor AN 'esbelto, airoso'; *haidor* BN 'altanero', L 'enérgico para el trabajo', *haidur* L 'activo, trabajador'; *aidur* (Añ) AN 'grave, pesado, perverso', Larram. 'maligno', etc. De *aide/aire*.

(H)aidur¹ (v. *aidor*) - (Harr.) 'malicieux, méchant, rusé, malin, perfide, trompeur', L 'travailleur'; *haindur* 'austero' *andur* 'ruin' (RS *handurreria* Oih. 'arrogancia').

Il y a contradiction entre les deux étymologies différentes données pour chacune de ces entrées et le lien qui en fait deux formes apparentées. Si l'on admet que *aidor* et (*h*)*aidur* sont un seul et même terme, il est exclu de faire provenir le premier de *aide/aire* "air" et le second de *aindur* > *aidur* par contraction ou de toute autre forme *andur, andorra* (Corominas) comme il est question dans le traitement de la seconde entrée:

"La forma *andur* es la más antigua, ya en doc. nav. de 1225, 1257, et., como prueba Mich. *FLV* 1, 16; por tanto, *aindur* > *aidur* es reducción fonética. Ante esto, Corominas se siente inclinado a revisar su etimol. arábigo del cast. *andorra* 'mujer ordinaria, ruin' (s. XIV, etc.) de su *Diccionario* (1, 207), que cree más bien prerromano o vascoide que arábigo..."

Je passe sur les étymologies de Löpelmann (*EWBS*) et de Bouda. En revanche, Lhande, *Dict. Basque-Français*, p. 405 donne à *handureria* (avec une vibrante simple) les sens de "enflure d'orgueil, de vanité, vantardise, arrogance". Un rapprochement avec *handi* "grand" ne serait peut-être pas à dédaigner (?).

Pages 628-629

Aier AN, L, aezc., *aiher* L, BN, S 'propensión, inclinación'.

Ici encore, j'aurais certes préféré que la forme "nordiste" figure en entrée. On peut se demander pourquoi il y a, dans l'ensemble, un parti-pris "sudiste" chez les lexicologues du Pays Basque Sud, alors que dans bien des cas on sait que la forme à aspiration *-h-* est soit antérieure, soit la plus répandue. Il est vrai que le problème du classement des entrées est très difficile, donc parfois arbitraire ou artificiel. Pour ce qui concerne l'étymologie, il me semble que les auteurs auraient dû se poser la question de savoir si le terme *aiher* n'a pas eu à l'origine un sens concret, c'est-à-dire géographique comme l'étude de la toponymie le laisse penser. On doit envisager que le sens premier a été "versant, pente, inclinaison, coteau" ou quelque chose de ce genre.

Le nom du village d'*Ayherre* (bsq. *Aiherra*), *aiherre* 1321, *ayherre* 1244, *ayherre* 1350, 1413 en Basse-Navarre semble confirmer cette antériorité du sens géographique (cf. pour les données ci-dessus J.B. Orpustan, *Toponymie Basque*, n.° 105, p. 90).

Pages 642-643

Aitz¹ 'piedra, peña'.

Parmi les formes variantes citées, il manque l'importante forme *ahetz* attestée dans la toponymie, par exemple dans *Ahetzparren*, qui est l'ancienne forme du moderne *Hazparren* du Pays Basque Nord, oublié à nouveau.

Page 647

Aizkora, haizkora, axkora, etc. 'hacha'.

On n'a toujours pas avancé en ce qui concerne l'étymologie du nom de la hache en basque. Je ne comprends pas pourquoi les auteurs refusent la proposition de Campión *EE* 11, 34 **aitz-gora* "pierre en haut". La phonétique est respectée (*g-* initial sonore devient régulièrement *k-* après sifflante *z* ou affriquée *tz*). Quant au sens, on peut y voir "la pierre en haut d'un manche ou pierre qu'on lève en haut pour frapper". Il y a au demeurant une autre explication possible qui n'a pas été évoquée jusqu'ici à ma connaissance: les Basques avaient parmi leurs coutumes, sans doute par superstition ou religiosité païenne, et pour ne pas s'attirer "les mauvais esprits", celle de disposer les haches avec le fil du tranchant tourné vers le ciel.

L'étymologie latine que l'on s'obstine à maintenir me paraît faible. Elle a contre elle le fait que *asciola* (dont j'admets qu'il a pu avoir une influence à la rigueur) est seulement un diminutif en latin, soit "hachette, petite hache", le nom de la hache étant *ascia*. D'autre part le *-l* de *aizkol-* est tout à fait normal dans les mots composés (*afari* "dîner" > *afal-du* "dîné", etc.). Corominas parle d'influence de *aitz* sur *asci-* par analogie avec les autres termes formés à partir de *aitz* (*aitz-ur*, *aitz-tur*, *aiz-to*, etc.) qui révèlent le niveau néolithique du basque. Soit. Mais la gymnastique ou la contorsion de la métathèse *asci- *ai(t)zk-*, si elle n'est pas phonétiquement exclue, me paraît tout de même bien peu économique en l'occurrence.

Pages 652-653

Akher, akar V. (Mic. *aquerra*) 'macho cabrio'.

Les auteurs indiquent le rapprochement de *akher* "bouc" avec *aketz* "verrat". Il me semble qu'on aurait pu insister davantage sur la probabilité d'un sens primitif **ake-*, *aka-* "mâle" (châtré?).

ASJU XXII-3:

Page 847

Amañ V, G, AN, R, *hamar* L, BN, S 'diez'.

A propos du sens "limite" (*amai*) rapproché de (*h*)*amar* "dix" et à propos de l'hypothèse que (*h*)*amar* a pu vouloir dire "cinq" autrefois (*amarreko* du jeu de mus, *amastarriko* "jeu des enfants avec cinq pierres"), il faut peut-être rappeler que de nombreuses langues préhistoriques avaient un googol quinaire et que "cinq" représentait la limite ou "un grand nombre", sens qui est précisément donné parfois à *bost* en basque. Dans la numération basque, on a précisément une série de chiffres purement basques qui va de "un" à "cinq". Ensuite on a affaire soit à des noms de nombres qui semblent être des emprunts (*sei* "six", *zazpi* "sept", cp. avec les formes indo-européennes lat. *sex*, *septem* ou formes approssimantes, peut-être elles-mêmes d'origine substratique méditerranéenne d'ailleurs, cp. par ex. lat. *septem* et le sémitique *s-b-t* "sabat"), soit à des noms qui reprennent les chiffres "un" et "deux" et les associent avec une base qui paraît signifier "dix", par ex. *zortzi* "huit" à partir d'un ancien **zor* "deux" et *bederatzi* "neuf" à partir de *bede-* "un" apparenté à *bat*. Le proto-basque a donc pu, si l'on excepte (*h*)*amar* qui se trouve isolé, être une langue à googol quinaire.

Pages 858-859

Amun (Duv.) 'especie de manzana'.

Le rapprochement établi avec les formes indo-européennes, et plus précisément iraniennes (*a*)*mun*, yidgha *amuno* < **amana* me paraît tout à fait satisfaisant et doit être retenu. Il s'agit peut-être en effet d'un terme de civilisation propre à plusieurs couches linguistiques, mais un contact rapproché n'est pas à exclure non plus. Il y a parfois dans le basque de surprenantes formes qui paraissent communes à une zone où ont pu se côtoyer et s'interpénétrer des familles de langues en principe bien distinctes. Ainsi j'ajouterai au rapprochement entre basq. *amun* et ir. *amun* le rapprochement qui, précisément, a été fait entre ce même terme indo-européen oriental et l'ouralien, cp. fi. *omena*, est. *ōun*, etc. in A.J.Joki, *Uralier und Indogermanen*, MSFOu 151, Helsinki, 1973, n.° 99, p. 295 et plus récemment K. Rédei, *Uralisches Etymologisches Wörterbuch* vol. 6, Budapest, 1988, p. 718.

Pages 860-861 et 872

Anae V 'hermano de varón', *anai* V, G 'hermano', etc.

Ani v. anai.

Les auteurs évoquent à propos de ces termes désignant le frère une série universelle du même type que celle de *ama* "mère" ou *ata* "père". Il est très à la mode de se débarrasser d'un problème de parenté ennuyeux en parlant d'universaux dont la force argumentatoire est faible du fait même de leur répartition sur un grand nombre de familles de langues ou de leur caractère expressif par exemple. Il me semble que cela a donné lieu à quelques excès. On aboutit parfois à masquer une parenté réelle. En effet, une fois que l'on a dit "universal", on n'a rien dit du tout en réalité. Trop souvent c'est une manière de voir réductionniste, une façon de se cacher la tête dans le sable comme l'autruche. Le fait qu'un terme soit "universel" n'explique pas pourquoi il l'est justement! Il ne faut pas y voir systématiquement un terme voyageur ou des "onomatopées" qui surgissent ici et là de manière indépendante les unes des autres, par le seul jeu du hasard. Si l'on peut à la rigueur comprendre que chez tous les bébés du monde le mytacisme *m* des mots désignant la mère est spontané, exprimant le contentement de l'enfant par la succion du sein maternel, et que cela relève de la polygénèse et non de la monogénèse des langues, il sera bien difficile en revanche d'expliquer ce qui peut faire que l'on retrouve presque partout le phonème dental *t* pour le nom du père (*ata*, *atta*, *aita*, *tata*, *atata*, *it*, *et*, *iitx*) du basque à l'eskimau en passant par le sémitique, l'indo-européen et le ghiliak! On le retrouve aussi dans les langues amérindiennes.

C'est pourquoi je signalerai ici simplement le fait que dans la "série universelle" mentionnée par les auteurs des "Materiales...", il conviendrait d'ajouter à *anai* "frère" (ou "frère aîné" en proto-basque?) les formes suivantes relevées en turk shor: *anay* "frère aîné", en mon (branche mon de la famille mon-khmer): *anay* "id." ou "oncle", jap.: *ani* "frère". Il n'est pas impossible que le nom du frère aîné ou de l'oncle soit dérivé d'une base **ana-* désignant la mère ou d'autres parents en général: bsq., cast. *ana*, *aña*, turk *ana* "mère", esk. *añana* "mère nourricière", etc.

Page 874

Anokui BN 'calabaza para llevar vino'. De *ano*, var. de *ardau*, *arano*.

La première partie du terme composé est bien expliquée (il s'agit bien sûr de *arno* "vin"), mais la seconde est passée sous silence, sans raison. C'est le terme *kui* "calebasse" qui est une contraction de *kubi*, bien attesté. Il vient d'une très vieille racine **gob/kob/gab/kab*: "forme en creux ou en bosse" à tendance universelle, très prolifique. C'est le type même de racine à forme double sonore ou sourde à l'initiale, que l'on rencontre également dans des racines substratiques pré-indoeuropéennes telles que le très connu **gar/kar* "pierre, roche, etc." ou **gand/kand* "hauteur" (cf. Cantabres, Cantal –Plomb du–, **bar*, *ball/par*, *pal* "id.", etc.).

Page 876

Antolabide BN 'modo de arreglo', ...

Les mots de la famille sont présentés ici par ordre alphabétique: *antolaira*, *antolakai*, *antolamendu*, *antolatu*, *antolatuxe*, *antulaegin*. On ne comprend pas bien pour quelle raison c'est un composé qui est mis en entrée. Cela ne serait valable que si *antolabide* est attesté en premier dans les textes, et encore, ce n'est pas une obligation. Et de toute façon il faudrait dans ce cas le signaler. La forme verbale peut tenir lieu d'entrée (*antolatu*) ou à la rigueur le radical (*antola-*).

Page 883

Haogaitz S 'tempestad'.

Les auteurs écrivent ceci: "Según Corominas, de *ao* L, S 'situación' y *gaitz* 'malo'. No ve claro que *ao* sea 'boca' aquí. A lo sumo cabría 'boca' > 'sabor' > 'situación' (?)".

Il est vraiment surprenant que l'on n'ait pas pensé immédiatement à expliquer *ao* comme une contraction, pourtant évidente, de *aro* "temps" d'où *aro-gaitz* "mauvais temps, tempête"! C'est d'autant plus évident que la perte du *r* inter-vocalique est bien connue en souletin. Cf. Lhande, *Dict.*, p. 62 *arogaitz* S-zalg. "tempête" et surtout *haogaitz* S (A), var. de *arogaitz* "tourmente, tempête", toujours chez Lhande, *op. cit.*, p. 406.

Page 889

Apatz² V 'homme afable, campechano'. En *Supl.* A² gizon apatza 'homme calmoso'.

Aucune étymologie n'est donnée pour expliquer ce terme. Il est possible qu'il soit à mettre en relation avec *paz* "paix", cf. *apazegatu* L. "pacifier, calmer" (cast. *apaciguar*)?

Page 895

Ar¹ V, G, AN, BN, *har* L. BN, S 'macho, varón' ...

Commentaire des "Materiales...": "El poco volumen de la raíz ha favorecido comparaciones que poco dicen y pueden prolongarse al infinito. El hecho más interesante es que esta misma voz como sufijo (Uhl. *RIEV*, 3, 6) sirve para designar animales machos (*ollar* 'gallo', en relación con *ollo*, *katar* con *katu*). Se recogen a título de curiosidad varias comparaciones propuestas. Campión *EE* 43, 133 cita acad. *jarra* 'hombre'. Tromb. *Orig.* 113 da nama *aró* 'masculino', bereb. *ar-gaz* 'hombre', ár. *řu-s*, arm. *ar-kh* 'varones', yakuto *är*, *ärän* 'varón', mongol *ere* 'id.', etc., kafa *arro* 'macho' (*ibid.* 150); Gabelentz 146 s. cita eg. '*ar* 'hombre' C. Guis. 60 y 270 menciona lat. *aries*, gr. *Faq-ην*, uerres; Grande-Lajos *BAP* 12, 315 señala hón. ant. *erj* 'varón', çèremi *örghè* y *örje* 'id.', finés *yrkō*, *ürkō* 'id.'. Comparaciones con cauc. en Tromb. o. c. 113: avar *ro-s* 'varón', lakk *la-s* de **ra-s* 'id.' (etr. *Paσερα*); Bouda *Buk n.º* 123 y *Hom. Urq.* 3, 212 cita georg. ant. *ga-ri*, mod. *khari*, svano *ga-n* 'buey' (!). Mukarovsky, *Mitteil.*, 1, 141 en su intento léxico-estadístico menciona los términos mande *yar*, songhai *aru*, som. *rag*, bereb. *argaz*, etc., para designar 'hombre'."

Voilà un exemple typique de la façon dont une bonne piste se trouve involontairement noyée dans la foule des rapprochements mis sans distinction sous la rubrique "curiosités" étant donné le parti-pris des auteurs contre les rapprochements avec des langues éloignées, comme s'il y avait aujourd'hui une sorte de tabou. Le résultat de cet état de

choses, la conséquence, c'est que tous ces rapprochements sont mis sur le même plan sans discernement. Cet amalgame est préjudiciable à la recherche linguistique. Dans le cas présent, il apparaît pourtant assez clairement. à qui veut bien affiner un peu son jugement, que parmi tous ces exemples cités comme "curiosités", le meilleur rapprochement est de loin celui que l'on peut établir entre le basque *ar* et le turco-mongol *är*, tchouvache *ar*, et ce d'autant plus que la même opposition existe dans les deux groupes de langues entre cette forme *ar/är* et une forme *eme* désignant la "femelle" ou la "femme", cp. mo. *eme* "femme", kirghiz *eme* "id.". Il s'agit de très vieux termes du vocabulaire fondamental dont la morphologie n'a pas changé depuis des siècles. La tendance "universaliste" ou expressive éventuelle d'un terme comme *eme* ne change rien à l'affaire.

Page 904

Araulitu (Duv. *ms*) 'golpear los árboles para hacer caer la fruta'.

"Corominas se pregunta si puede responder al tipo del gascón *arreulit*, *arraulit* 'transi de froid, engourdi, faible', cat. *arraulit* 'acurrucado', lat. *ad-rigor-ire* (*BDC* 19, 23)".

On ne voit absolument pas le rapport sémantique qui pourrait exister entre le sens du terme basque et ceux des langues latines ou romanes qui sont mentionnés ci-dessus.

Les "Materiales..." constituent un ensemble de données très important pour la recherche basque, désormais incontournable comme on dit aujourd'hui. Mais je ne pense pas que l'on puisse en faire un dictionnaire étymologique et c'est pourquoi on regrettera la décision qui a été prise de regrouper les "Materiales..." en fascicules (Suppléments à la revue *ASJU*) sous le titre prématuré de *Diccionario etimológico vasco*!! L'idée des "Materiales..." est excellente, aussi il est dommage de l'entacher ainsi par la précipitation.

SATAN, DEABRUA ETA EUSKARA. Mito baten inguruan

Donostia, 1992.10.30

Juan San Martin

Jaun-andere euskaltzainkideok:

Deabruak, esan ohi denez, bere gaizto izatetik baino gehiago omen zekien zahartzaroko zuhurtasunagatik. Hala behar, nor bazen.

Piarres Lafitte (1901-1985), gure euskaltzainkide zen jakitunarek, gazte zelarik, ez omen zekien euskaraz apez egitean eta, gezurra badirudi ere, ikasteko asmorik ere ez. Baina Jean Saint-Pierre (1884-1951) irakasle zuelarik zorrozki hartu zuen, Euskal Herrian apaizgoa betetzeko euskara jakitea beharrezkoa zuela agerraraziz. Hala dio Xipri Arbelbidek Lafitteren biografian (1).

Hara hemen Jean Saint-Pierreren agindua eta galdea: “Heldu den urtean predikatzen hasi behar duzu. Prediku bat frantsesez eginen duzu. Baina bestea? Euskaraz, kaskoinez ala biarnesez?”

Lafitteren ihardespena: “O! Biarnesez bai segurenik ere. Errexena hori da neretzat.”

Saint-Pierrek ordea: “Ez ahal duzu holakorik eginen! Aitamak biak euskaldunak eta izigarrikeria liteke euskara baztertzen bazinu hola. Ja, ja! Joka zaitez nahi duzun bezala bainan heldu den urtean euskaraz egin behar duzu zure predikua.”

Zirkin egin nahirik ihardetsi omen zion: “Nola nahi duzu? Diotenaz, deabrua Euskal Herrira etorri zen batez, “bai” eta “ez” baizik ez zuen ikasi eta oraino, Santizpirituko zubiaren beste aldera gabe biak nahasten zituen”.

(1) X. Arbelbide, *Piarres Lafitte*, Donostia-Baiona, 1986, 19. or. Eta J. Saint-Pierre apezpiku jaunaren nortasunez ikus mendeurrenez eskaini zitzaizkion hitzaldiak: *Euskera*, XXIX (1984), 465-484. orr.

Maisu zaharraren erantzuna ordea: “Zaude ixilik hortik! Hori baino abilagoa da bai deabrua. Ez du “bai” eta “ez” ikasi bakarrik, bainan beste ainitz gauza. So egizu zoin polliki biltzen dituen euskaldunak! Lot zaitetz euskarari gizona”. Deabruaren ahalmenak orotarikoak ziren iritzikoa genuen J. Saint-Pierre jauna. Ikasi zuen nonbait zer zen haren hizkuntza, Axularrrek berak *Gero* (1643) liburuaren 136. orrialdean gai horretaz zionaren arabera. Gainera, gogoan izanen zuen Zuberoko pasturaletan, turko edo gorriak ateratzen diren aldean deabrua dagoela beti, mutu baina begirale, gaiztoak babesten.

Deabruak hiruhortzekoa zorrotz demoninokerietarako. Saint-Pierrek ez ezik, Txirrita bertsolariak ere ikusi zuen arrisku hori, albaiteruaren gelan demoninoak nabari zituenenez gorputzaren bueltan demoninuetan:



Albaiteruan sala
domoniño hortan
demoniñozko estropozu bat
egin nuen bertan,
demoniñuak hemen,
demoniñuak han,
demoniñuak beti
gorputzaren bueltan,
demoniñuak sasoi zeukaten
demoniñuetan.

Badira uste dutenak herrientzat mitoak beharrezko direla. Baina mitoak, beti mito. Alde dagoena, norbere engainagarri, eta kontra dagoena, kaltegarri; biak, ordea, benetan gezurti. Herri zibilizatuek ez dute mitoen beharrik.

Baina ikus dezagun ustez aski hedatua zebilen deabru erdaldunarena. Lehen lehenagotik bere burukide Satanengandik hasita ea zer zioten euskalari ospetsuek.

Hasteko, Euskaltzaindiaren sorreratik hil arteraino gure erakunde honen buruzagi izan zen R.M. Azkuek (1864-1951) Donibane Garazin bildu eta *Euskalerraren Yakintza* delako lehen liburukian dakarrena aipatuko dugu:

“Zazpi urtez Euskalerrian egon zen deabrua eta etzuen ikasi al izan ez eta *bai* baizik. Eta hek Baionako Santi Espirituko zubia igaraitean ahantzi zituen” (2).

Horietan berezia genuen George Borrow (1803-1881), *The Bible in Spain* liburuaren egilea. Zeinek noizbait izan zuen morroi euskalduna. Bere esanetan, euskaldun herria kantari gehiago da poeta baino. Hala ere, zirrara eragin zion koplak zahar baten bertsoa argitaratu zuen bere liburu hortan. Non irakur daitekeen:

Itsasoa urak andi,
Eztu ondorik ageri
Pasako nintzake ni andik
Maitea ikusteagatik (3).

Gainera, berri jakingarri ainitz biltzen du, XXXVII. kapitulua euskarari eskainia denez gero. Borrow-ek, 1838. urtean San Lukasen Ebangelioa argitara eman zuen Madriden Juan Jose Vicente Oteiza albiztuari medikuak itzulia. Baina orain noan gaur interesatzen zaigunaren harira, ingeles harek, arestian aipatutako liburuan, besteak beste, honako iritzi hau eman zuen euskarari buruz:

“Hain handiak dira eta hainbesteko aldiak gainerako hizkuntzetatik, oso bitxia da zertxobait mintzatzen den arrotza aurkitzea, espainolek neke izugarrikotzat jotzen dute gainditzea, esaeratzat dutenez, Satan zazpi urtez bizitu zela Bizkaian, eta aldebeharrak izan zuela zeren ezin omen zien ulertu bizkaitarrei eta haiek ere ez berari” (4).

Zerk sor arazi zuen mito hori? Satanak eta deabru gaizkileek ikasi ezinezko hizkuntza gurea; euskaldunok garbi gordetzeko aukerakoa, noski. Baina, era berean, aldezaurretiko iritzi honek erdaldunak euskalduntzetik uxatzen ditu. Irizpide hori ez da harritzekoa, oraindik orain ere Real Academia Española-ren *Diccionario de la Lengua Española*-k gure hizkuntzaren adierazpenez, bigarren adiera edo esan nahitzat honela dionetik, “Vascuence” hitzean: “lo que está tan confuso y obscuro que no se puede entender”, jartzen bait du. Zentzugabea ez ezik lotsagarria deritzagu. Hori irakurtzeaz euskaldunok ahalke eta gainerako edonork esan lezake, gaztelera jakinaz gero gainerako hizkuntza guztiak errazak direla, euskara ezik.

(2) R.M. Azkue, *Euskalerraren Yakintza*, I. liburukia, 1935, 359-360. orr.

(3) J. San Martin, “Euskal poesia arrotzen ikuspegia”, *Hondarribia*, 45. zenb., 1991.

(4) G. Borrow, *The Bible in Spain* (1842), London, 366. or.: “So great are the difficulties attending it, and so strange are its peculiarities, that it is very rare to find a foreigner possessed of any considerable skill in the oral language; and the Spaniards consider the obstacles so formidable that they have a proverb to the effect that Satan once lived seven years in Biscay, and then departed, finding himself unable either to understand or to make himself understood”.

Herriak ala elizginek asmatua ote zen hain hedatua bihurtu zen uste hori? Ez behintzat sorgin ihizan aritu zen Pierre Lancre zenak. Ziurrago litzake gure mintzairak egituraz latin jatorrikoetatik dituen desberdintasunengatik.

Julien Vinson (1842-1926) Paristik Euskal Herrira etorriak, guziok dakigunez, ez zuen euskaldunoi buruz iritzi onegirik, baina bere emaitza aberatsa ezin hobetzat jo dezakegu; euskal literaturaren kritikaz eta bibliografiagintzari lotu zen. Katalogatze horri esker, gure literaturaren historia eta autoreak ezagutaraziz ikerkuntzarako bideak ideki zizkigun. Bere lehen lanetariko bat izan zen *Maisonnewe & Larose*, Editeurs, etxeak eman zuen *Le Folk-Lore du Pays Basque* deritzana. Han dakar honako hau: "Diotenez, deabrua Lapurdin zazpi urtez bizitu ondotik, ez omen zituen bi hitz baizik ikasi: *bai* eta *ez*, eta gainera, ahaztu omen zitzaizkion Baionatik irtetzean Saint-Ezpirituko zubiaren erdian." Baina hura zen baino zorionsuagotzat jotzen zuen bere burua, harek baino hitz gehiago ikasi eta oroitzen zituen (5).

Iturri horretatik harturik nonbait, gauza bera zion Rodney Gallop (1901-1948) inglesak. Mutiko zela, amak ekarri zuen Euskal Herrira 14ko gerra baino lehen, hemen bere aberkide eta Donibane-Lohitzunen apez zen W. Webster-ekin egin zituen euskaldungoan zenbait saio labur eta ondotik liburu eder bat burutu, *A Book of the Basques*, non agertzen duen V. kapituluaren hizkuntza eta literatura adieraztean: "Euskal hizkuntza beti izan da ospetsua bere zailtasunagatik. Euskaldunak diote deabrua beren herrira ikastera joan zenean, zazpi urte igaro ondotik, *Bai* (Yes) eta *Ez* (No) horietatik ez zela igaro, gogaiturik uzteko. Gainera bi hitzok ere laster ahaztu zitzaizkiola Baiona igaroz herritik aldetzean. Erdi Aroan Scaliger zeritzanak, "latinak hautsi ez zituen hamalau hizkuntzetarikoa" zela hots egin zuen, honako hau gaineratzeko: "Elkarren artean ulertzen direla diote, baina nik ez dut sinesten!" Hala ere, aitortzen zuen "hizkuntza honek barbarotasunik ez zuela, ez karrankarik, ez eta arnasarturik" (6).

(5) J. Vinson, *Le Folk-Lore du Pays Basque*, Paris, 1883, sarreraren XI. or.: "On pretend que le diable après avoir habité le pays de Labord pendant sept années, no avait pu réussir á apprendre, que deux mots basques, *bai* "oui" et *ez* "non", et encore ajoutette-on qu'il les oubliá, en sortant de Bayonne, au milieu du pont Saint-Esprit."

(6) R. Gallop, *A Book of the Basques*, London, 1930, 80. or.: The Basque language has always been famed for its difficulty. The Basques say that, after seven years, having got no further than *Bai* (Yes) and *Ez* (No) he gave it up in disgust. They add that he forgot even these two words as soon as he had passed through Bayonne on his way out of the country. In the Middle ages Scaliger, who described Basque as "one of the fourteen languages that Latin did not destroy," exclaimed: "They say that they understand one another, but I don't believe it!" He admitted, however, that "this language has nothing barbaric, strident nor aspirated."

Ondotik zetorren Philippe Veyrin (1900-1962). Jaun hau Saboiatik Euskal Herrira etorria zen udara igarotzeko asmoz eta gure herriaz liluraturik hemen gelditu zen. Burges izanagatik oso langile genuen ainitz historia eta istorio bildu eta argitaratuz; baina idazlanez gainera gure paisaiak pintatu zituen. Burutu zuen lanik ezagunenari *Les Basques* deritza, 1942. urtean argitaratua. Liburu horren azken argitalpena, gehigarri, gaur egun euskaltzainburu dugun Haritschellar jaunari zor diogu. Hemen jarriko dudan lekukotasuna ordea, hitzez-hitz, 1955.eko argitalpenetik jasoa da, eta hau dio: "Harrigarritzko eder da hizkuntza, arroka soilak bezala eusten du mendeak zehar inguruko erromantzeen itsas-gora, zailtasun ospearekin. Euskaldunak eurak atseginez agertzen dute deabruak berak ere ezin ikasizkotzat, zazpi urteren buruan, *bai eta ez*, "oui et non" esaten baizik ez bait zuen ikasi. Bi hitzok ere ahaztu omen zituen Saint-Ezpirituko zubia igarotzean" (7).

Harrigarria badirudi ere, oraindik gure egunotan jarraitzen du mito horrek zeren 1968. urteko ekainean Mar del Platan-n ospatu zen Segunda Convención de Ciencia Ficción de la República Argentina literatura sarian "Gu ta gutarrak" zeritzan ipuiak irabazi zuen, egiletzat Magdalena Moujan Otaño matematika irakaslea zela. Argentina eta Espainian, batera agertuko zen Franco-ren zentsurak argitalpena galerazi ez balu. Baina ez uste deabrukeria oztopo zuenik, ez. Galerazpena euskaldunon jatortasuna hain nabari agertzetik zetorkion. Franco-rentzat, herri bezala, gu ez ginen gu, eta gutarrok burua makurtu beharra genuen "unidad de destino en lo universal" zeritzan mito berri laster suntsituko zenaren aurrean. Baina, deabrukeria ere hor zen argentinarraren luman: "El extranjero que lo aprenda muy inteligente ha de ser, y bueno además, pues Jainkoa no dejaría aprender el euskera a un malvado. El Demonio estuvo aquí siete años, y con nadie entenderse pudo" (8).

Mito horrek, argi dago, euskarari ez ziola onik egin. Baina, gaur hemen adierazi nahi dudana, zera da, deabruak ere euskara bazekiela.

Pedro Ignazio de Barrutia y Basagoitia (1682-1759) Zalgo auzoan jaio zen aramaioarra Mondragoen Udaleko idazkari zela, *Gabonetako ikuski-zuna* edo *Acto para la Noche Buena* zeritzan antzerkia agertu zuen.

(7) Ph. Veyrin, *Les Basques*, Arthaud, 1955, 198. or.: "Cette belle et étrange langue, résistant comme un récif isolé à la marée montante des parlers romans que l'entourent depuis des siècles, possède une réputation bien établie d'extrême difficulté. Les *Eskualdun* eux-mêmes se plaisent à répéter que le Diable en personne ne put, au bout de sept ans, apprendre à dire que *bai eta ez*, "oui et non". Encore oublia-t-il ces deux mots, sitôt traversé le pont Saint-Esprit."

(8) "Gu ta gutarrak" ipuia Ediciones Dronte etxeak argitaratu zuen lehenik Argentinan. Urte berean *Nueva dimensión* aldizkariari hemen ukatu zitzaionean. Aldizkari honek ezin izan du argitaratu hamar urte pasa arte, sarrera hitzekin egileari omenaldia eskainiz. Deabruaren aipamenezkoa 14. orrialdean irakur daiteke.

Euskaldunontzat satanas baino aisago Luzifer genuen deabruen buruzagi eta, hara non, Barrutiak agertu zigun Luzifer bertsolari. Egileak bere ahoan jarri zituen bertsoak, zortzikoan baina ez neurketa hain onean; hori bai, orduko arrasatearren euskara jatorrean daude, Luziferrek bera nor zen adieraziz eta Jesusen jaiotzagatik aztoraturik ez ezik madarika-zioz beterik, Asmodeo eta Berzebu adiskideei deiadarka Herodes erregea lagun harturik gerra egiteko:

Izanic infernuco prinzipte andia
 Demonio guztien aguintaria
 ni orain indar бага, ni orain loturic
 zenbait bazter baten jaiogaitic
 Luzifer altivo sovervioa
 nun da anchinaco ire brioa
 pena garraz ravia, tormentu andiac
 Abrasazen deust errai guztiac
 iregui bidi lurra irunsi nagui
 secula aimbat pena eztot eugui
 ene ynfernua dago Velenen

 orayn portalean jaio dan orri
 auzia emongo deustat secula veti
 guizonaq ene contra aimbat podere
 guizona yzatea ezta posible
 nun ayz Asmodeo, nun aiz Berzebu
 ocassino onetan favore favore
 Lagun yzango dogu Herodes Herregue
 Zierra zierra, guerra, guerra.

Ondotik Asmodeo eta Berzebu ere euskarazko bertsotan mintzo ziren, lehenak beste deabrukide Baal, Belial eta Leviatan deituz eta inguratzen dituzte hiritar parrandalari guztiak. Hor ba, arrazoi zuen Jean Saint-Pierrek, deabruak euskaldunok ere beragana biltzen gaituela zionean.

Barrutiaren antzerkiko pasarte hau ez nuen txosten honen harira ekarriko egileak berak Belengo portalea Arrasate inguruan kokatu ez balu.

Txirritaren irudimenezko bertsoak diotenez, albaiteruaren salan agertu omen zitzaizkion demoniñorik ugari; baina ez zigun esan mintzatzen zirenik. Albaiteruearekin, erabiltzekotan ere, abereen hizkuntza erabili beharko zuten, noski.

Deabruak euskaraz zekienaren lekukotasun zaharragorik badugu, deabruak jendartean fisikoki hezur eta haragi agertzen ziren garai haietakoa

gainera. Hala behar ere, Pierre Lancre epailari kriminal harentzat, euskara bera bait zen deabruen hizkuntza.

1609. urtean Lancrek uxatu zituen akelarrezaleak eta laster ziren mugazemendik ihesi. Sorgin hotsak ugaritzeaz ihiza ere ekarri zuen. Lapurdiko andereak Bordelen suzko urkamendira eramateetik bi urte barru Jaizkibel mendiko Santa Barbara ermitaren ingurura jo zuen ekaitzak eta San Joan gaueko jaia ospatzen ari zirenean hasi zen sorgin ihiza. Akelarrean atxilotuak eraman zituzten epaitegira. Baina, zorionez, G. Salazar y Frias Inkisizio gizona Lancre baino zentzuzkoagoa izaki eta sorgintzat hartuak erretzearen kontra paratu. Hala ere gorriak ikusi zituzten.

Larri agertu ziren akelarre hartan partaide zirenak: sorginak ziren ala ez, egia aitortu edo zigorra; beste aukerarik ez, sorgintzat salatuek sutatik libratzerik nahi bazuten.

Honen berri eman zigun Serapio Mujika (1875-1941) historiagile aipatuak. Bere ekintzak Hondarribia eta Irundik hasita zenbait hiritako artxiboak katalogatu eta historia aztertzaile nabarmendu zelarik, Diputazioak bertako artxibategia antolatzekeo deia egin zion. Berari zor diogu *Geografía General del País Vasco-Navarro* saileko *Guipúzcoa* tomo mardula. Izan ere, merezimenduz izendatua zen Probintziako kronista ofizialtzat. Berak aurkitu zituen Jaizkibelgo akelarrearen paperak Hondarribiko Udal-agiritegian (9). Eta horietan agertzen denez, akelarrean parte hartu zuen Isabel García 13 urteko neskatokak, epailearen aurrean aitortu zenez, hiru adardun deabrua agertu zitzaizela eta, meza-beltz hartan, zenbait zeremoniaren ondotik, deabrua gaskoinez mintza zitzaizela Donostia eta Pasaikoei, eta euskaraz Irun eta Hendaiakoei.

Aspaldi horrek eman zidan gaia euskaraz artikulua bat idazteko (10). Baina ondoriorik ere bai.

Hara non deabrua euskaraz mintzo zen, Jaizkibelgo Santa Barbaran akelarrean bildu ziren hendaiar eta irundar guziak ulertzeko eran. Hala izanik, txukun erabili beharko zuen euskara gurea. Joan zen mendearen erdialdera fama hedaturik zegoenez, Irun inguruetan egiten omen zen euskararik hoberena. Hala zion Luis de Usoz y Río (1805-1865) idazleak. Idazle hau Perun jaioa zen, gaur egun Bolivia-rena den Chiquisaca hirian, guraso nafarregandik, eta ikasketak osatu ondorean etorri zen Europara, George Borrow-rekin harremanean Espainian Ebangelisten bigarren aldiko Erreforma bultzatzeko, eta Madrident hil zen *Reformistas* argitalpenaren hogeigarren zenbakia inprimategiratu ondotik. Protestante

(9) S. Mugica, "Los Gascones en Guipúzcoa", *Homenaje a Carmelo de Echegaray* (1928) liburukian argitaratu eman zuen. Ikus 11. orrialdean aitortza.

(10) J. San Martin, "Deabrua Jaizkibelen gaskoinez eta euskaraz mintzatu zenekoa", *Hondarribia*, 23. zenb. (Uztaila-abuztua, 1988), 7. or.

hark Jacob Gråberg de Hemsö jaunari Alemaniara igorri zion gutun hartan, 1842ko irailaren 14an, Iztueta-aren idazkeraz zenbait iritzi eman zizkion esanez: “Le acusan los guipuzcoanos de falta de pureza en el lenguaje, y de mezclar voces del vascuence francés, del vizcaino, y otros dialectos, y no usar sólo el vascuence puro que se habla en las cercanías de Irun” (11).

Esan gabe doa, Hondarrribian bertan, kalean bederen, akelarrearen garaian gaskoina zela nagusi; gaur egun gaztelera den bezalatsu. Eta nagusi jarraituko du, euskara guztiz baztertu arte, baldin euskaldunok gure mintzairaren erabileran bizkortze ahalmenik erakusten ez badugu. Hortarako, har dezagun ikurtzat: euskaldunari euskaraz.

Euskara txukun erabiltzea beharrezko izango zuen Axularri itzala kendu nahiz ibili zen deabruak. Gure klasikoen maisua buruz-buru aurkitu zuenean, itzalgabe uzteko arriskuan agertu omen zen eta kosta zitzaiola estutasun hartatik irtetzea, J.M. Barandiaranek bildu zuenaren arabera, deabruak itzala galerazteaz arima gabe utz zitzakeanez. 1956. urtean Arantzazun Euskaltzainen Biltzarrean hala aipatu zigun, urte berean Parisko Sorbonan zehatzago agertu zuena: “Axular euskaldun andienetako delá ez da erran beharrik. Bere irakasaldiak eta bere mintzaera zoragarriak ezagunak dire eta hekien itzala menderen-mendeetan atsegin izanen zaie gure ondorengoi” (12).

Ukapenezko mitoak baztertu, gaur egungo euskaltzaleok, lau menderen ondotik Detxeparekin errepikatuz, “euskaldun den gizon orok altxa beza burua!”.

Egia esateko, euskararik ez dakiten abertzale gehiengoari esker, kontsentsuz onaturiko legea dugu, Euskararen erabilpena aurazkotzeko 10/82 Oinarrizko Legea. Duintasunaren arabera, fedea ekintzekin beteko balitz, gehiengo horri esker, gutiengoa gehien izan liteke, noski. Hortarako gure abertzaleon gogoá asmo soilean ez dadila gelditu. Atxeki eta eutsi diezaiogun Autonomi Komunitatean indarrean dagoen euskara normalkuntzarako lege horri, hizkuntza gaiso hau mito zaharreko satankeri edo deabrukerietan eror ez dadin. Hala bedi.

(11) L. de Usó y Río, *Antología* (1986an E. Cobo-ren sarrerez eta hautaketaz argitaratua), Madrid, Ediciones Pléroma, 1986. Ikus 171. or.

(12) J. M. Barandiaran, *Obras completas*, VI. liburukia, “Axular'en itzala”, 191-204. orr. Liburuki berean jarraian dator Arantzazuko hitzaldia; ikus baina, *Euskera* agerkarian, I, 1956, 285-293. orrialdeetan.

RESUMEN

El presente informe académico se desarrolla sobre la creencia acerca de la dificultad o imposibilidad que entraña el aprendizaje del idioma vasco a no ser que se acceda a él por tradición familiar, razón que a muchos ha servido de excusa para rehuir su estudio. Es el caso del que con el tiempo sería una de las personalidades más eminentes de las letras vascas, Pierre Lafitte, quien arguyó a su profesor Saint-Pierre que el demonio vivió en el país durante siete años y marchó desesperado al no poder aprender vascuence. El mito de satán o del demonio que no pudo dominar el euskara estuvo muy extendido durante el pasado siglo, y sus secuelas han llegado hasta nuestros días. Nada extraño cuando el Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española, como segunda acepción de la voz “vascuence” dice: “lo que está tan confuso y oscuro que no se puede entender”. En la Edad Media, Scaliger le dió un calificativo muy similar, sin embargo reconoció que “esta lengua no tiene nada de bárbara, ni de estridente, ni de aspirada”.

R. M. de Azkue, en su recopilación de costumbres y supersticiones, nos dió a conocer la leyenda del diablo que, después de siete años de permanencia en el País Vasco, no aprendió otra cosa que *ez* (no) y *bai* (sí), y aun de esto se olvidó al atravesar en Bayona el puente de Sancti Spiritus camino de Francia. Este mito lo encontraremos asimismo en obras de extranjeros que se interesaron por nuestra cultura autóctona, desde G. Borrow hasta Ph. Veyrin, pasando por J. Vinson y R. Gallop.

Sin embargo, dicha opinión encuentra a su vez una contradicción evidente, a tenor de la información de los publicistas nativos. Ejemplo de ello lo constituyen, entre otros, Jean Saint-Pierre, quien desconfiaba de las argucias del demonio, o Pedro Ig. Barrutia, que llevó a escena a Lucifer vascoparlante en el siglo XVIII; incluso el mito recogido y contado por J. M. Barandiaran acerca de que ni el diablo pudo con su astucia hurtar la sombra de Axular, el más representativo de los clásicos de la literatura vasca, sitúa al demonio hablando en ese idioma sin dificultad.

Finalmente se aporta una declaración testimonial del año 1611, de una joven acusada de asistir al Akelarre del monte Jaizkibel, como consta en un documento del Archivo Municipal de Fuenterrabia (Hondarribia), donde se dice que el diablo arengó en vascuence y gascón a los allí presentes, poniendo así de manifiesto que también él era capaz de dominar el idioma vasco.

Es evidente que dicha creencia no favoreció el uso y aprendizaje de la lengua, y no será nada fácil investigar a fondo el móvil, si es que lo hubo. En la caza de brujas que llevó a cabo Pierre Lancre a comienzos

del s. XVII hubo otros intereses, además del pretexto de acabar con el brote calvinista, pero es mucho más prudente pensar que el origen de todo ello ha sido la propia vanagloria de los vascos, presuntuosos de poseer una lengua misteriosa diferenciada de las neolatinas que la rodean. En definitiva, una convicción que no ha favorecido al uso y desarrollo de la lengua.

Ahora nos toca esforzarnos en reemplazar el espacio perdido para lograr su puesta al día, valiéndonos de las normativas generadas desde las nuevas formas institucionales, cuya aplicación en la actual Comunidad Autónoma vasca puede servirnos de modelo de convivencia social.

RÉSUMÉ

c) Perpaus osoan garrantzi txikien duen elementua, hots ezagunena delakoan igortzen dena, aditzaren atzetik doa, eta geroago ikusiko dugunez, ezaba daiteke zenbait arazo estilistiko konpontzeko.

d) Ipuinak edo "pasadizuak" kontatzen direnean elementu guztiak ezezagunak izanik autore batzuen usteetan ordena askea da, baina ez dirudi mami konplexuko testuak itxuratzekean horren askatasun handirako joera dagoenik ez eta askatasun horrek deskodifikazioa segurtatu edo erraztuko lukeenik. Zenbait kasutan, gaztelaren edo frantsesaren eragina izan liteke orden aldakortasunaren errudun. Maila kultural testu idatzietarako eta bereziki maila teknikorako, aurreko eskema mantentzea komeni litekeela proposatu da Zabala & Odriozolaren (1992) lan horretan. Proposatutako ereduan, ordea, badago zirrikito bat: galdegai-sistema tinkoa bada ere, zenbait kasutan galdegai bat baino gehiago hauta dezake idazle/hiztunak, egoera pragmatiko bakar baten aurrean egonik ere. Beronek, nolabaiteko askatasuna eskaini dezake, baina lan horretan adierazi denaren arabera, kongruenteago (eta euskararako onuragarriago) bide da hizkuntz maila batetik bestera sistemako elementuen artean hautaketa desberdinak egiten direla pentsatzea, inolako sistemarik ez dagoela edo sistema finkatu gabeko zenbait egoeratan soilik betetzen dela pentsatzea baizik.

2.3. Perpaus konposatuen hitz-ordena

Jadanik Etxebarriak (1977-78) zirriborraturiko bidetik aurrera joanez Zabala & Odriozolak (1992) adierazi dutenaren arabera, kontu honetan, hiru faktore sintaktiko desberdinek hartzen dute parte euskararen barne-ikuspegitik, haietaz gain bi erdarek ere nolabaiteko eragina dutelarik: lehenik, perpaus menperatua ez zatikatzeko eta atzizkidun adizkia bukaeran jartzeko joera kulturala aipatu behar da. Joeraz baino haruntzago, lege modura eman dute Altubek (1929) eta Arejitak (1982). Bigarrenik, ezezko perpausetan gertatzen den *ez + aditza* sekuentziaren aurrerapen ezaguna gogoratu behar da. Azkenik, fokalizazio eta topikalizazioari dagozkion fenomenoek hartzen dute parte auzian. Zabala & Odriozolaren (1992) ideiak, honela labur daitezke:

a) Atzizkidun adizkiaren kokapenari dagokionez, joera hori ia araua da idatzitako testu landuetan eta hedatu samarra da mintzaera landuetan. Zenbait baldintzapean semantiko betetzen denean, arau hori ia halabeharrez bete behar dela esan liteke. Bestalde, araua ez betetzeak ondorio agramatikalik ez dakarren arren, gaizkiuletueterako arazo larriak ekarriko lituzke deskodifikazio zaila duten goi-mailako testuetan: *hutsik dagoenean aspektu-sintagmaren burua, goratu egiten da aditza bezalako formek, aspektu-sintagmaren burua hutsik dagoenean, goratu egiten da aditza delakoek baino deskodifikazio zailagoa dute, gramatikaltasun edo estiloari buruzko kontsiderazioak egin gabe ere; berez, menperatuaren elementu bat bere perpaus-"mugetatik" ateratzen denean, entzule/irakurleak ardura han-*

diagoa jarri behar du elementu hori menperatu ala nagusiari ote dagokion finkatzeko, zenbait kasutan segurtasunez jakiterik ere ez dagoelarik.

b) Ezeztapenean gertatzen den *ez + aditza* sekuentziaren mugimendua, aurreko arauaren aurka doa nolabait, eta nolabaiteko zalantza nabari daiteke idazle/hiztunen artean. Hemen ere, arau zurrundetara heldu gabe, eta Zabala & Odriozolaren (1992) lerrotik aurrera joanez, zenbait aholku eman daiteke ahalik eta deskodifikazio-arazo gehien ekiditeko eta, jakina, euskarak bereak dituen joerak apurtu gabe jokatzeko:

b1) *-(e)la* atzikia daramaten menperatuetan, ezeztapenaren aurrerapena guztiz hedatua da edozein hizkuntz mailatan eta beraz, ez dago kontrakoa esaterik (11).

b2) Zeharkako galderak itxuratzeko erabiltzen den *-(e)n(entz)* atzikiaren kasuan, elementuren bat atzizkidun adizkiaren atzean jartzea hedatu samarra da, baina ez bide dago deskodifikazio-arazo larriegirik atzikiaren araua betetzen ez denean (agian nagusia oso mota definitukoa izanez bi perpausen arteko mugak oso garbi sentitzen direlako). Ez da beraz zertan “ezarri” behar atzikiaren araua, baina beharbada *ezaguna da animalia horien lerro ebolutiboa zein den forma, ezaguna da zein den animalia horien lerro ebolutiboa* forma baino apur batez landuagoa da.

b3) Deklinabide kasu-marka daramaten beste atzizkien eta *-(e)la(rik)* atziki adberbialaren kasuetan, ezeztapenaren aurrerapenak oso trakets sentitzen dira esparru kulturetan eta beraz, ez egitea gomenda liteke; izan ere, antzeko zeozer gomendatu du Arejitak (1982), atzizki menperatzaileen artean egoera desberdinak daudela bereizi ez badu ere:

Abiadura metodo horren bidez kalkulatzen ez denean, zailtasunak azaltzen dira (ez abiadura ez denean kalkulatzen metodo horren bidez, zailtasunak azaltzen dira).

Abiadura metodo horren bidez ez kalkulatzea komeni da

c) Topikalizazio/fokalizazio fenomenoak, bere indarra du auzi honetan, aurreko sailean aipaturiko orden arau batzuk apurtezinak baitira edonolako perpaus nagusi edo menpe-ratuan. Izan ere, aurrean trakets modura aipatu ditugun *metodo horren bidez kalkulatzerakoan abiadura* modukoak, hirugarren faktore honi zor zaizkio kasu askotan. Bestela esanda, bi arauak gatazkan sartzen direnean, zenbait hiztunek topikalizazioaren “alde” egiten dute, azken finean arau

(11) Zenbait murriztapen jar liteke ordea, perpaus nagusi eta menperatuen arteko kontaktu-guneei dagokienez: Nagusiarekiko (ezkerraldeko) kontaktuan dagoen elementua menperatuaren subjektua denean (*esana dugu aditza ez dela goratzen kasu horietan*), edo bestelako elementua denean (*esana dugu ez dela goratzen kasu horietan*), deskodifikazioa ez da zaila eta beraz, bultza daiteke horrelako ordena. (Eskubialdeko) kontaktuan dagoena menperatuko bestelako elementu bat denean (*aditza ez dela goratzen kasu horietan esan dugu*), oso perpaus traketsak lortzen dira, ez baitago oso garbi kontaktu-sekuentzia (arrotz) horrek zernolako ezaugarri prosodikoak dituen; gainera, kontaktuan dagoen elementua (*kasu horietan*) bi perpausen artean eskegita dago, batari (*kasu horietan ez da goratzen*) ala besteri (*kasu horietan esan dugu*) esleitu behar ote zaion garbi ez dagoelarik.

horren funtzioa garrantzitsuagoa baita: zenbait kasutan atzizkiaren araua betez gero esaldia zeharo desitxuratzen duen topikalizazio ez-egoki bat lortuko litzateke eta hori ekiditeko, topikalizatua ez den elementua atzizkidun adizkiaren atzean jartzen da. Aipatu ditugun hiru arauen artean (agian funtzio estaliena edo garrantzi txikiena izateagatik) arriskuan dagoena atzizkiarena da eta horregatik, topikalizazio/fokalizazioaren arauak eta atzizkiaren araua batera bete ahal izateko konponketa (estilistikoa) bilatzea interesgarri izan liteke (12).

3. BESTELAKO KONTU BATZUK

Sarreran esan dugunez, hemen ikutuko diren puntuak ez dira euskararen zauri larriak; hizkuntz sistemak ondo samar onar lezake honelako aldaerazpenen eragina, baina hor, bestelako faktore batzuk kontsideratu behar dira: aldaerazpenak finkatu egingo balira, sistema ez lirateke bereziki minduko, baina gertatzen ari diren aldaerazpenak, ez dira guztiz trinkoak oraindik, eta zenbait idazle/hiztunek guztiz bereganaturik dituzten bitartean, bestelako batzuek nolabaiteko erresistentzia erakusten dute oraindik; beti bezala, gaizkiulertuak eta deskodifikazio zailak dira egoera diasistematiakoaren ondorio.

Zer esanik ez, honelako kontuen kasuistika oso zabala da eta normatibizazio-jarreraz ari gareneko lan honen esparrutik kanpo dago kontu horiek guztiok biltzea. Dena dela, garrantzi handi samarra duten bi esparru desberdin gainbegiraturako dugu hemen, jadanik plazaratu diren jarrera horiek aztertuz: 31 sailean, zenbatzaile mugagabeen esparrua ikutuko da (13); 32.ean, bestalde, edukin semantikoarekin zerikusirik duten puntu ugarietarikoz batzuei helduko diegu arin batean.

3.1 Zenbatzaileak

3.1.1. *Bat* zenbatzailea eta *-a* mugatzailea

Eskutartean ditugun gramatikan -Txillardegia (1978), Goenaga (1978), Euskaltzain-dia (1985)-, garbi samar adierazita dago izen-sintagmak eraman ditzakeen determinatzaileen sistema gaztelaren eta frantsesaren sistemetatik oso ezberdina dela. Kontu honetan, beste askotan bezala, Txillardegirena da jarrerarik gogorrena, *bat* delakoaren esparrua ia soilik zenbatzaile mugatu modura erabili behar dela esanez. Bigarren autoreak eta Akademiak, gehiegizko erabilera berberak salatu nahi izan dituzte (*haizea altxatu zen* eta ez *haize bat altxatu zen* ; *etxe*

(12) Posibilitate bat hauxe izan liteke: menperatuaren esparrutik atera nahi den elementua, garrantzi txikienekoa da, hots, ezagunena da alde zurretik, eta beraz, problematikoa den esalditik ezaba liteke: *modu horren bidez kalkulatzerakoan abiadura, faktore ugari hartu behar dira kontutan* egin beharrean, *metodo horren bidez kalkulatzerakoan, faktore ugari hartu behar dira kontutan* egin daiteke.

(13) Gogora bedi 21 sailean ere, zenbatzeile batzuk aztertu ditugula. Han ikusitako arazoak, ordea, askoz ere alderazpen bortitzak ekarri dizkiote euskarari: hitz bitan esanez, *haize asko* izen-sintagmak, euskal sistemarekiko "bortizkeria" handiagoa darama, *etxe polit* batean *bizi naiz* edo *idazlumearekin idazten dut* perpausetako izen-sintagmak baino.

politean bizi naiz eta ez etxe polit batean bizi naiz), baina *bat* horri nolabaiteko zenbatzaile mugagabearen balioa onartuz eta *bat* eta *-a* direlakoan arteko banaketa nonbait profilatuz. Lerro beretik apur batez aurrerago joanez, Odriozola & Zabala (1992), bi elementuen kasuistikan sakontzen saiatu dira, zenbait erabilera traketsen "konponketa" edo baliabide egokiago eskainiz (14); izan ere, autore hauek adierazi dutenez, *bakar bat eta edozein* esanguren arteko bereizkuntza kontzeptuala, zeharo garrantzitsua da hizkuntz maila teknikoan, eta ahal den neurrian, bereizkuntza kontzeptual hori *bat /-a* bereizkuntza morfosintaktikoari egokitzea komeniko litzateke, maila teknikoan mezuen transmisioa segurtatzeko.

3.1.2. Zenbatzaileen deklinabidea: *Bat /batzu(k)*

Txillardegik (1978), garbi bereizi zituen zenbatzaile hauen bi deklinabideak: multzo baten elementuetariko *bat* adierazi nahi zenean, deklinabide mugagabea erabiltzen zen eta erabiltzen da gaur egun zenbait tokitan (15); hortaz, horrelako egoeran mugagabea mantendu behar litzatekeela adierazi zuen autore honek. Beste alde batetik, *bata eta bestea* moduko baliabideetan, deklinabide mugatu singularra egiten da euskara orokorrean, inolako normalizazio-ahaleginik behar ez delarik. Autore berak eta geroago Euskaltzaindiak (1975) ere, leku- eta denbora-kasuak zenbait lekutan (edo agian leku gehienetan) mugatu modura egiten direla adierazi dute. Euskaltzaindiak (1985), bere aldetik, kontuaren aurrean har daitekeen bi jarrera posible azaldu du: *de facto* gehiengoaren egoerari eutsi eta leku- eta denbora-kasuak edozein egoeratan beti mugatu modura egin, ala bestela mugagabe eta mugatuaren oinarri linguistiko/logikoak mantendu. Euskaltzaindiaren barneko Euskara Baturako batzordea (1991), azkenik, lehenengoaren alde makurtu da, aurreko kontsiderazio guztiak egin eta gero literatur tradizioaren bilakaera goioan hartuz (16).

3.2. Zenbait kontu semantiko

Guztion ezagunak dira hitzen esparru semantikoetan euskarak jasan duen, jasaten ari den eta zalantzarik gabe etorkizunean jasango dituen erosio eta desbiderapen semantikoak. Izan ere, ikuspegi orokorretik ez dago endakapen-

(14) Kasuistika osoa hemen jasotzea ezinezkoa bada ere, hone hemen zirriborro bat: a) Zenbakia: *irudian, puntuak ez ditugu lerro (bakar) batean kokatu*; b) Saillapenak: *F, aplikazio jarraia da* (ez *F, aplikazio jarrai bat da*); c) Baieztapen orokor edo kategorikoak: *Etniaren kontzeptuak, faktore objektibo eta subjektiboak daramatza bere barnean* (ez *faktore subjektibo batzuk*); d) Katetoria ezagun baten elementu ez-diferentziatua: *Biz F(x) edozein funtzio jarrai* (eta ez *funtzio jarrai bat*); e) Elementu baten determinazio edo kalifikazioa: *Ehunen pisuak bilakaera paraleloa erakutsi du* (eta ez bilakaera paralelo bat); f) Multzo baten partaidetzat har daitekeen zehaztu gabeko elementua: *Lirika mozarabea, jartxa-sorta batez osoturik dago*.

(15) Kontutan har bitez iparraldeko euskalkietako deklinabide mugagabe estandarra, eta bizkaieraz, adibidez, *baten* inesibo mugagabe zaharra.

(16) 13Odriozola & Zabalaren (1992) lanean, azkenik, jaso (eta onartu) da behin betirako erabaki hori, beharbada beste aukerak ondorio pedagogiko hobekoak izan zituzkeela azaldu eta gero.

-prozesu horren aurrean inolako jarrera zehatza hartzerik: Hitzez hitz borrokatu behar litzateke (eta borrokatzen ari da) desbiderapen ageriak daudenean. Ikus bitez adibidez Etxeberriak (1977-78) edo Salaburu & Kintanak (1984) azalduko frantsesa jakin (ez ezagutu), eskubiko alderdi batek garaitu (ez irabazi), itsasotik lehorra (ez lurrera), jertze berdinak /jertze bera,... Zenbait desbiderapen semantiko ordea, hitz bakar baten esparrutik haruntzago doaz: horrelako desbiderapena jasaten ari diren elementuek esanguraz gain funtzio gramatikal bat daramaten neurrian, beraien gaineko aldaerazpenak izen baten gaineko aldaerazpen semantiko hutsak baino askoz ere eragin (biderkatzaile) handiagoa izango du hizkuntz sistemari. Mota honetako aldaerazpenekiko hurbilketa bat egingo dugu sail honetan: 321.ean, gazteleraren preposizioen balio anizkoitzak euskarari duen eraginari emango diogu gainbegirada bat. 322.an, erdal juntagailuen zeregina izango dugu aztergai (17).

3.2.1. *Gazteleraren preposizioek eraginiko interferentziak*

Sistema preposizional erromanikoak, oso kasuistika korapilotsua dauka, preposizio bakoitzaren esangura/funtzioak finkatzeko unean. Euskararen gaineko eraginari gagozkiola, modu orokorrean defini daiteke interferentzia: erdal preposizio batek dituen adiera/ erabilera guztietatik bat, deklinabideko marka zehatz baten bidez betetzen da euskaraz; aldaerazpen-prozesua, beti gertatzen da berdin: erdal preposizioak dituen beste adiera/erabilera guztiak lehenengo adieraren parekoa den euskal kasu-markari esleitzera jotzen da, bestelako baliabide guztiak gero eta gutxiagotan erabiliz. Honelakoetan salatu behar denak, bada, azalpen zaila dauka, zeren eta parekaketa indibiduo edo komunitate elebidunaren fenomeno sikolinguistiko inkonsziente bati baitagokio nonbait, eta sasiparekaketa egiten denean, egiten duen hiztun/idazlea edo komunitatea ez da izaten errudun, interferentzia “eginda” heltzen baitzaio bere hiztun denborakideengandik edo aurreko belaunaldietatik. Darabilgun adibide bat korapiloa askatzeko: *boligrafoarekin idaztea* esaten duten askok, kompetentzia sintaktiko garatua dute eta euskara ondo samar edo guztiz ondo erabil dezakete. Baliabide okerra, euskara osasuntsu

(17) Ez ditugu kontsideratuko hemen “interferentzia semantiko” direlako horien inguruan dauden beste arazo-mota ugari: Lehenik, erdal *suponer, seguir, encontrar* edo *dar(se)* bezalako aditzek euskal esparru semantikoetan duten eragin semantikoa (eta sintaktikoa) kontsidera liteke: *ondo dagoela suposatu* dugu baina *aldaketa garrantzitsuak ekarri ditu* (eta *ez suposatu ditu*). Bigarrenik, beste normatibizazioarekiko jarrera-mota batez mintza gintzeke, aditz-familien barnean dauden esanguren banaketak ondo finkatu/bideratu behar direla esanez: izan ere, gaztelerak esparru epistemologikoan (*reconocer, conocer, determinar, establecer, encontrar, descubrir, investigar, escudriñar, analizar, examinar, caracterizar...*) *facilitar* (permitir / impedir, favorecer / dificultar, facilitar / dificultar, posibilitar / impedir, dejar / impedir, promover, propiciar, predisponer, ayudar, acompañar, implicar, producir...) edo ezaugarri-aldaketen esparruan (*convertirse, devenir, desarrollar(se), evolucionar* gardenki adierazteko duen ahalmena, nonbait sorterazi behar da euskararen baitan ere, horietako hitz bakoitzak dituen adierak euskaraz hitz bakarraren bidez halabeharrez adierazi behar ez dela azpimarratuz. Hirugarrenik, premiazkoa da (atizkidun) perpaus menperatuen arteko esangura-desberdintasunak ondo finkatzea, kausa/ondorio, bide/emaitza eta abarreko harremanak funtsezkoak bait dira mezu baten zehaztasunari begira gaudenean: adibidez, *-tzean* = *-bitartean, -tzerakoan* = *-tzeke unean, -tzekotan* = *-tzeke kasuan, -tutakoan* = *eta gero* banakuntza bultza daiteke, gazteleraren *a/ + infinitibo*a egitura bakarraren eraginetik aldentuz.

deneko esparruetan ikasi bide du, zeharo egokiak diren egitura batzuen barnean. Esana dugunez, horrelako akatsa finkatu egiten den neurrian, etorkizuneko euskaldun batek (elebakarra balitz ere), erdarakada nabaria den hori ikasiko du bere euskara (ona)ren barnean. Beha ditzagun interferentzi fenomeno ugari sorterazi dituzten *con /avec*, *para /pour* eta *por /par* preposizioak.

a) *Con*

Aurreratua dugu jadanik *con* preposizioak euskararen barnean ezarri duen eta ezartzen ari den aldaerazpena: berak dituen adiera/erabilera guztiak sozietibo kasuaren bidez adierazteko edo ordezkatzeko joera. Zentzu horretan, Odriozola & Zabala (1992) sozietibo horren esparru semantiko (jatorrizko)ak finkatzen saiatu dira, beti bezala maila teknikoko adieren eta baliabideen artean ahalik eta harreman gardenena ezartzeko asmoz:

a1) Izenlagun-forma, bereziki teknikoak da eta harreman bidirezionalaren zentzu espezifikoa dauka: *adinarekiko erlazio oposatuak*.

a2) Laguntza (konpainia) delako adiera arruntaz gain, testu (landu)etan, aldaketa batzuk aipa daitezke zenbait aditzi loturik: *erkatu, konparatu, parekatu, ados egon, etorri...*

a3) Azkenik, guztiz okerrak edo oker samarrak diren erabilerak eta konponketa eragingarriak, hauexek dira:

erizpide sedimentarioei lotuta (ez sedimentarioekin lotuta)

faktore horren bidez konpondu (ez faktore horrekin konpondu)

saioa zenbait balio desberdin erabiliz egin (ez saioa zenbait balio desberdinekin egin)

harrapakina ahoan duela, joan egiten da (ez harrapakinarekin joaten da)

gauza bera gertatu zaio bektore-mota horri (ez gauza bera gertatu da bektore-mota horrekin)

aditz nagusi batzuen kasuan, kanporatu egiten dira osagaiak (ez aditz nagusi batzuekin)

b) *Para*

Jadanik Etxebarriak (1977-78) salatu zuenaren arabera eta Euskaltzaindiak (1985) eskainiriko datuetan oinarriturik, Odriozola & Zabalak (1992) zenbait zehaztasun gaineratu dute:

b1) Zentzu destinatiboa, hau da objektua/hartzailea harremana eman nahi denean, testu landuetan *-rako* (bizigabeak)/*-rentzat* (bizidunak) mantentzea komeni liteke, aitzinako gizarte euskaldunak bide zuen filosofia animistaren kutsaduratik urrundu.

b2) Zenbait erabilera/adiera ez dira guztiz egokiak:

Zeolitarek kasuan, trukaera maximoa 0.12 da (ez Zeolitarentzat)

K₀n rako kalkulatu den balioa (ez Kn arentzat)

Filosofu honen eritziz (ez Filosofo honentzat)

c) *Por*

Etxebarriak (1977-1978), ikuspegi praktikotik, zenbait euskarazko itzulpen eman zuen *por /pour* preposizioetarako:

arrazo horregatik haserretu nintzen

hortik etorri da

egokitzat jotzen du

itsasoz joan da

bost bider zazpi berdin hogeitamabost

Bestalde, bai autore honek, bai Salaburu & Kintanak (1984), Euskaltzaindiak (1985) eta bai Odriozola & Zabalak (1992) ere, hedatuz doan erabilera okerra salatu dute: Kausarako motibatibo kasua (-*gatik*) erabiltzen den bitartean, egilea ez da inola ere kasu horren bidez adierazi behar, gaztelaniaz eta frantsesaz bi adieretarako preposizio bera badago ere (*por /par*): *aurreko ikertzaileak aurkitua* (eta ez *aurreko ikertzaileagatik auritua*) eta *beroagatik ebaporatua*. Nahastea, beharbada, kausa adierazi nahi denean nola edo halako egile figuratua posible izatetik sortu da: *beroagatik ebaporatu da ura* esaten denean, beroaren interpretazio semantikoa oso hurbil dago egiletik; izenaren [-biziduna] ezaugarriak, ordea, kausa ulertzera garamatza. Lehenengo kasuan, ordea, *aurreko ikertzaileagatik aurkitua* guztiz ez-egokia da, zenbait kasutan perpaus agramatikal samarrak ere egiten direlarik (*gai hori ikertzaile askorengatik ikutua da*). Odriozola & Zabalak (1992) esplizituki adierazi dute bi kasu erreal (eta linguistiko) desberdin dagoela: Lehenengoan, egile bizidun batek zuzenki hartzen du parte ekintza batean, ondorio bat sorterazten duelarik (*ikertzaileak aurkitua*); honelakoetan ergatiboa erabili behar da halabeharrez. Bigarrenean, izaki bizidun edo bizigabe baten existentzia edo gertakizun bat, ekintza baten kausa modura azaltzen da; honelakoetan, motibatiboa erabil daiteke, baina baita ergatiboa nolabaiteko zentzu figuratua itxuratuz (*lehorteak mendiak agortu ditu* → *mendiak, lehorteak agortuak dira /mendiak, lehorteagatik agortu dira*).

3.2.2. *Gazteleraren juntagailuek eraginiko interferentziak: como, sino*

Sail honetan, *como* juntagailuari emango diogu lekua. Erdal juntagailu honek euskararen gainean sorterazi duen aldaerazpen larria, Salaburu eta Kintanak (1984) salatu dute lehendabiziz eta Zabala & Odriozolaren (1989 a eta b) lanetan deskribatu da geroago, zabal samarra den kasuistika eskainiz. Berrikus dezagun auzia gazteleraren ikuspegitik abiatuz:

1. Konparazioa: *como* /*bezala*

Ikuspegi semantikotik bi elementu desberdin konparatzen direla eta ikuspegi gramatikaetik bi perpaus osotzen direla azpimarratu behar da: *moluskuek, anelidoek (eboluzionatu duten) bezala eboluzionatu dute puntu horretan*, hau da, biek eraman dute bide bera eboluzioan. Edozein modutan, esan beharrekoa da parentesiaren aukera hori Goenagari (1978) zor diogula; izan ere, autore honek, *bezala* konparazioaren esparrutik kanpo erabiltzea “debekatu” egin zuen, zeharkako bidean egin bazuen ere.

2. Nolabaiteko lanbide edo iharduera: *como*, *de* / Φ

Euskaraz **absolutibo mugagabea + egon** /*sartu* /*joan* egitea bide da egokiena: *neskame egon nintzen etxe batean (neskame bezala egon nintzen hain egokia izango ez litzatekeelarik)*.

a3) Funtzioa, ikuspegia, itxura edo kondizioa: *como* /*modura*, *gisara*, *erara*

Testu konplexuei gagozkiola bereziki garrantzitsua izango litzateke *bezala* bi termino konparatzen direnerako utzi eta izaki bakar baten bi ikuspegi ematen denean *modura*, *gisara*, *erara horiek* erabiltzea. Hizkera arruntetan (eta euskalki guztietan) hain ondo betetzen ez den arren, bereizkunta kontzeptuala segurtatzeko goi-mailako idatzietan mantentzea komeni litekeela adierazi da Zabala & Odriozolaren (1989 *a* eta *b*) lanetan: *nitrogenoa, oxido eran dago kasu honetan -eta ez oxidoa (dagoen) bezala*, *nitrogenoa*, modu molekularrean edo oxido modura ager baitaiteke eta bietan baita nitrogeno.

a4) Usteko identifikazioa edo apreziazioa: *como*, *por* /*-tzat* + *hartu* /*joan* /*lema* /*eduki* /*luzi*

Hau ere, oso bereizkuntza kontzeptual garrantzitsua dugu goi-mailako testuetan: *ekonomia zientzia sozialtzat har daiteke*, hau da, akordio baten pean zientzia sozial dela onartuko dugu (eta beraz ez bide da komeni *zientzia bezala* erabiltzea, baliabide horretan aurreko esangura guztiak nahasturik azalduko bailirateke).

4. LABURPENA

60. hamarkadaren bukaeran euskararen morfologiak jasan zuen normatibizazio-prozesuaren atzetik, hain normatibizagarri ez den sintaxiaren gorabeherak etorri dira azken bi hamarkadotan. Lan honetan, normatibizazio sintaktiko horren aurrean azaldu diren jarrera-mota guztiak biltzen saiatu gara, konpondurik ez dauden arazo batzuei eman lekizkiekeen irtenbideak ere, jarreraren adibide gisan azalduz.

Alde batetik, Txillardegiren “lerroa” azaldu da eta kontuak laburtzearren, Altuberen jarraitzaile modura ikusi dugu: beste hizkuntzetatik heldu diren fenomeno arrotzak zalantzarik gabe baztertu eta hizkuntzaren barnean berez dauden arazo diasistemakoak euskal hizkuntzaren sistemaren argitan konpondu.

Beste alde batetik, Goenagaren jarrera aipa daiteke, nonbait Lafitte-ren ildoan: normatibizazio-asmo espliziturik gabe, euskal sintaxiaren deskribapena,

ahalik eta era estentsibo eta intentsiboenean; ikusi dugunez, jarrera honek azken finean ondorio normatibistak ekarri ditu hain egoera linguistiko eta sozial endakatu dagoen euskara bezalako hizkuntza batean.

Arejitak batetik, eta bestetik Etxebarriak eta Salaburu & Kintanak, asmo normatibistak (edo zuzentzaileak) azaldu dituzte beraien lanetan; ikututako gaiak ordea, partzialagoak izan dira Txillardegiren gramatikaren zabalera izatera heldu ez direlarik.

Euskaltzaindiaren gramatikaren liburukiek, bigarren jarrera-mota gisan aipatu dugun Laffite/Goenagaren lerrotik doaz, deskribapen sakon eta zabalarenetik alegia; ikusi dugunez, hala ere, deskribapen horien atzetik erabakiak hartzen ari dira; erabaki horiek hartzeko, Txillardegiren jarreraren ez bezala, hizkuntzaren *de facto* egoera hartzen bide da kontutan, Gipuzkoan gauzatzen ari den “koinea” nonbait bultzatuz, eta Altube/Txillardegiren lerroko eredu zurrun/logikoak baztertuz.

Normatibizazioarekiko azken jarrera gisa, Euskal Herriko Unibertsitatearen inguruan kokaturik dagoen bat ikusi dugu: hizkuntz maila tekniko bat itxuratzea. Jarrera honen baitan, edukinen eta baliabide sintaktikoen arteko harreman biunibokoak ezartzen saiatzen ari da, interferentziek eta hizkuntzaren ezagumendu txiroek sortera ditzuten diasistema-arazoetatik alde egiteko eta mezu konplexuak ahalik eta segurtasun handienaz transmititzeko. Horretarako, hizkuntz arunta bortxatzeko nolabaiteko joera nabari daiteke “mugimendu” horren baitan.

Kontu sintaktiko konkretuei begira, normatibizazio-jarrera horien kasuistika are korapilotsuagoa dela ikusi dugu:

a) Gaur eguneko usadioaren baliabide batzuk, “ezinezkotzat” jo dira edozein jarreraren ikuspegitik ere: *herri palestiniarrarekin elkartasuna*, agramatika-la da izen-sintagma bakar modura behintzat, eta gauza bera esan daiteke *juridiko arazoa* bezalako izen-sintagmei buruz.

b) Asimilatuz doazen beste interferentzia batzuek, harrera desberdinak izan dituzte bi hamarkadotako argitarapenetan: *Asko /gutxi* zenbatzaile mugagabeek izen zenbakarriak modifikatzeko soilik balio dutela, gramatika guztietan onartu da, baina (esparru teknikitik kanpo) ez dago hain jarrera gogorrik interferentzia asimilatu samarturik dagoeneko kasuetan: *?asko aldatu da loso aldatu da, asko etorri da laskotan etorri da*.

c) Euskara bere osotasunean hartuz kontsidera daitezkeen gauza batzuek (adibidez galdegaiaren fenomeno), ez dute halabeharrez isladapenik mintzaera edo euskalki guztietan. Honelakoan aurrean, bi jarrera ikusi da lan honetan: alde batetik, autore batzuek fenomeno orokorra ez dela esan eta nonbait normatibizazio-kontuetatik baztertu dute; beste muturreko batzuek, biziki defenditu dute sistemaren tinkotasuna. Galdegaiaren kontu konkretuari gagozkiola, erdiko bidea soma daiteke zenbaitengan: galdegai-sistema, existitzen da, baina hala ere, galdegai bat baino gehiago dago hautatzeko zenbait kasutan. Jarrera horrek, nonbait, galdegai-sistemaren “abantailak” bereganatu ditu, nolabaiteko malgutasunerako atek ere zabalik utziz.

d) Desbiderapen semantikoak direla eta, badago argi eta garbi salatu den zenbait kontu puntual, baina ez da gramatika guztietan hain jarrera gogorrik azaldu ikuspegi orokorrari begira. Esparru teknikoan ordea, gogor jokatu da erdal preposizio-sistema sorterazten ari den endakapenaren aurrean, konponbide gisan oso bide estuak proposatuz.

BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, S. (1929): "Erderismos" *Euskera*, 10 (1-4)
- ALTUNA, P. (1979): *Versificación de Detxepare. Métrica y pronunciación*, Ed. Mensajero, Bilbo
- AREJITA, A. (1980): "Aditzaren galdegaitasunaz", *Euskera*, 25 (2): 355-369
- AREJITA, A. (1982): *Euskal joskera*, Leopoldo Zugazaga ed., Durango
- AZKARATE, M. et al. (1981): "Word order and Wh-movement in Basque" in *Proceeding of the 12th annual meeting of the North Linguistic Society*, Cambridge, MA. MIT
- EGUZKITZA, A. (1990): *Ad nominals in the Grammar of Basque*, ms.
- ENSUNZA, M. (1983): *Alfabetatze teknikoak; zenbakiak /unitateak /irakurketak /eragiketak/lesamoldeak*, Udako Euskal Unibertsitatea
- ENSUNZA, M. (1999): "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak, *Euskera*, 34 (2): 577-596
- ETXEBARRIA, J. R. (1978): "Istripua gertatu deneko ordua", *Anaitasuna*, 1978. 01-15
- ETXEBARRIA, J. R. (1978): "Batak /batzu hitzaren erabilera", *Anaitasuna*, 1978-03-15
- EUSKALTZAINDIA (1985): *Euskal gramatika. Lehen urratsak*, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1987 a): *Euskal gramatika. Lehen urratsak (eraskina)*, Bilbo
- EUSKALTZAINDIA (1987 b): *Euskal gramatika. Lehen urratsak (II)*, Bilbo
- EUSKALTZAINDIA (1990): *Euskal gramatika. Lehen urratsak (III). Lokailuak*, Bilbo
- EUSKALTZAINDIA (1991): *Euskaltzaindia. Euskara Batuko batzordea. Gomendioak eta Erabakiak. 1991.eko abendua*, eskuskribua
- GOENAGA, P. (1978): *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia, 1980.
- LAFITTE, P. (1944): *Grammaire basque*, Elkar, Donostia, 1979.
- LAKA, I. (1990): *Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections*, MITWPL Dissertation series, Cambridge, MA
- MITXELENA, K. (1981): "Galdegai eta mintzagaia euskaraz" in *Euskal Linguistika eta literatura berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo
- ODRIOZOLA, J. C. & A. CANTERO (1992): "Euskal izenondoaren kokapenari buruzko zenbait ohar", *Euskera* (in press)
- ODRIOZOLA, J. C. & I. ZABALA (1992): *Idazkera teknikoak. 2.- Izen-sintagma*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen-zerbitzua
- ORTIZ DE URBINA, J. M. (1986): *Some Parameters in the Grammar of Basque*. Tesi doktora. University of Illinois at Urbana- Champaign.
- OSA, E. (1990): *Euskararen hitzordena zeregin komunikatiboaren arabera*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen- zerbitzua.
- ROTAETXE, K. (1988): *Sociolingüística*, Editorial Síntesis, Bilbo
- SALABURU, P. & X. KINTANA (1987): *Hobeto euskara hobean*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen-zerbitzua
- TXILLARDEGI (1978): *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Bilbo.
- VILLASANTE, L. (1979): *Sintaxis de la oración compuesta*, Ed. Franciscana de Aránzazu, Oñati
- ZABALA, I. & J. C.ODRIOZOLA (1989 a): "Gazteleraren como juntagailuak euskara teknikoaren baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika. I. Subordinazioaren esparrua", *Euskera*, 34 (1): 187-240.

ZABALA, I. & J. C. ODRIOZOLA (1989 b): "Gaztelararen como juntagailuak euskara teknikoaren baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika. II. atribuzioaren esparrua", *Euskera*, 34(2): 597-620.

ZABALA, I. & J. C. ODRIOZOLA (1989 c): "Komaren erabilera", *Senez*, 9(1-2): 101-116

ZABALA, I. & J. C. ODRIOZOLA (1992): *Idazkera teknikoa. 1. - Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera*, Euskal Herriko Ubibertsitatearen Argitarapen-zerbitzua

ZUAZO, K. (1988): *Euskararen batasuna*, Euskal Herriko Argitarapen-zerbitzua

BERRIAK

**ANDRE MARTINET IRAKASLE DOKT., UPV/EHU-ren
“DOCTOR HONORIS CAUSA” IZENDATZEA**

Leioa, 1992.10.7

Karmele Rotaetxe

André Martinet Irakasle Dokt., UPV/EHU-ren “Doktor Honoris Causa” izendatzea - Leioa, 1992-10-7.

Investidura del Prof. Dr. André Martinet “Doctor Honoris Causa” de la UPV/EHU.
Nomination au Doctorat “Honoris Causa” de l’Université du Pays Basque du Professeur André Martinet.

Laudatio: Karmele Rotaetxe Amusastegi

Linguistika eta Soziolinguistikaren Unibertsitate Katedraduna, UPV/EHUan.
Catedrática de la Universidad de Lingüística y de Sociolingüística, en la UPV/EHU.

Professur d’Université de Linguistique et de Sociolinguistique, à l’Univ. du Pays Basque.

Lehendakari Jaun Txit Gorena
Errektore Jaun Txit Gorena
Herri-Agintariak
Unibertsitate Lankide eta Ikasle Estimatuak
Jaun Andreak

Excmo. Sr. Presidente del Gobierno de Euskadi
Excmo. y Magfco. Sr. Rector
Ilustres Autoridades
Estimados colegas, personal de la Administración y Alumnos
Señoras y Señores

Mr. le President du Gouvernement de l’Euskadi
Mr. le Recteur
Mes chers collègues
Mesdames et Messieurs

Nous pourrions aujourd’hui répéter avec MALHERBE *“et les fruits ont passé la promesse des fleurs”* car la proposition de nomination d’André Martinet au Doctorat Honoris Causa que les professeurs de Linguistique Générale nous avons faite il y a bientôt cinq ans et qui fut acceptée par nos autorités académiques il y a plus de quatre ans va se voir finalement confirmée.

Eta alde horretatik, egun ederra da gaur. Ea bost urte duela Hizkuntzalaritza Arloak egindako eskaera gauzatu egingo da ekitaldi honetan, Martinet Irakaslea Doctor Honoris Causa izendatzean.

En los casi 5 años que han pasado desde que el Area de Lingüística, a través de la Facultad de Filología y Geografía e Historia, propuso la investidura del profesor Martinet como Doctor Honoris Causa de nuestra Universidad, he pensado alguna vez en las palabras que tendría que decir, lo cual no significa que las que pronuncie hoy sean las más acertadas. Ciertamente que la tarea no es fácil: dar cuenta en pocos minutos de una vida tan extraordinariamente fecunda como la del profesor Martinet, dedicada con inteligencia y ahínco a la lingüística supone un reto y conlleva el riesgo de la simplificación. Si, para alguno de ustedes esto ocurriera, le pido que lo juzgue con benevolencia, ya que no es mi intención. La importancia de André Martinet en la lingüística actual es tal que quienes nos dedicados a esta "ciencia del lenguaje y de las lenguas" hemos tenido, todos, obligatoriamente en nuestras manos, al menos dos de sus libros más conocidos **Eléments de linguistique générale** y **Economie des changements phonétiques**, aparte de muchos de sus numerosos artículos.

El profesor Martinet ha dedicado su vida entera —vida larga, afortunadamente— a la lingüística para hacer de esta ciencia social una disciplina autónoma y liberada de la tutela de las filologías, haciendo realidad la consigna lanzada por Antoine Meillet en el Primer Congreso de Lingüistas de La Haya de 1928.

Sus méritos le han valido importantes distinciones honoríficas: es Caballero de la Legión de Honor (1970), Laureado del Instituto de Francia con el Premio Volnay en 1938 y en 1956, el Premio Honoré Chevallier (1946). Miembro de la Academia Real de Dinamarca desde 1954, de la Sociedad Real de las Ciencias Humanas de Lund (1971), de las Societas Scientiarum Fennica (1971), de la Academia de Ciencias de Oslo (1976) y, como no podía ser menos, miembro de honor de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca desde 1979. No termina aquí la lista: es Presidente de Honor de la International Linguistic Association (1965) y Presidente de Honor de la Société Internationale de Linguistique Fonctionnelle/Internacional Society of Functional Linguistics desde 1980. Es asimismo miembro de honor de la Linguistic Society of America (1973), de la Société italiana di linguistica (1967) y de la Linguistic Society of India (1975). Varias Universidades de muy distintos lugares le han acogido en su seno y así es Doctor Honoris Causa de la Universidad de Lovaina (1970), de la de Turku (1970), de la Universidad Católica de Valparaiso (1972), de la Universidad de Lieja (1981) y de la de Friburgo de Alemania (1982).

Hay que citar también entre los reconocimientos a su valía distintos homenajes que le han sido dedicados como *Miscelánea homenaje a André Martinet*, "Estructuralismo e Historia", 3 vols., La Laguna-Madrid, 1958. *Linguistic Studies presented to André Martinet*, 3 vols. The Linguistic Circle of New York, 1967-69 y *Linguistique Fonctionnelle, Débats et Perspectives*, Paris Presses Universitaires de France, 1979.

Desde su Doctorado en 1937 con una tesis principal sobre *La gémination expressive en germanique* y una complementaria dedicada a la fonología de la palabra en danés, el profesor Martinet ha ido desempeñando distintas funciones:

Director de estudios de fonología en la Ecole Pratique des Hautes Etudes (1938-1947), Director de la International Auxiliary Language Association de Nueva York (1946-49), Jefe del Departamento de Lingüística y Profesor de Lingüística General y Comparada, Columbia University de Nueva York (1947-55), Catedrático de Lingüística General en la Sorbona (desde 1955 hasta su jubilación en 1977), Director de estudios de lingüística estructural en l'Ecole Pratique des Hautes Etudes desde 1957. Y, por si todas las funciones anteriores que, como se ve se solapan a menudo, no fueran ya más que suficientes, André Martinet saca todavía tiempo y energía para ser el Presidente del Centro mundial de información sobre la educación bilingüe, desde 1980.

Su actividad en consejos de redacción no es menor: es editor de la Revista *Word*, Nueva York, desde 1947-60, Director de *Travaux de l'Institut de Linguistique*, de Paris de 1956 a 1959, fundador en 1965 y director desde esa fecha de la Revista *La Linguistique*, Paris, New York y Director de la Colección *Le Linguiste* de Presses Universitaires de France, de 1965 a 1982.

No me es posible ni siquiera dar cuenta de su impresionante curriculum. Permítaseme únicamente indicar que tiene publicados unos 400 artículos y más de 30 libros que abarcan campos de Lingüística General (generalidades, fonología, sintaxis), Lingüística Indoeuropea, Lingüística Semítica, Lingüística Germánica, Lingüística Románica y Lingüística Aplicada, porque también se ha ocupado de la aportación de la lingüística a la enseñanza-aprendizaje de segundas lenguas. Es forzoso destacar el éxito de algunos de sus libros en el mundo entero. Así *Eléments de Linguistique Générale* de 1960, ha sido traducido a unas veinte lenguas: ruso y alemán (1963), inglés (1964, corregida y aumentada en 1969), portugués (1964), español (1965), italiano (1966), coreano (1963), polaco y rumano (1970), japonés s.f., albanés (1974), griego (1976), islandés (1979), croata (1982), turco y árabe (1989), vietnamita y chino (1990). Otro de sus libros de carácter seminal, *Economie des changements phonétiques: traité de phonologie diachronique*, editado en Berna en 1955, ha sido traducido al ruso, italiano, español, polaco, japonés, alemán, lo mismo que *La linguistique synchronique*, modelo de lo que debe ser la descripción lingüística, tan ignorada por lo que respecta al castellano como, por ahora al menos, por lo que respecta al euskera.

André Martinet se ha ocupado de lingüística en las circunstancias más adversas. Como es sabido, la Segunda Guerra Mundial interrumpió de forma especial los estudios de nuestra disciplina que, en la década de los treinta, se extendían principalmente desde el Círculo de Praga, por lo que la interrupción no precisa explicaciones. La excepción quizá fue André Martinet. Prisionero de guerra e internado en un campo de concentración, aprovecha la presencia en el lugar de oficiales franceses de distintas regiones para realizar una encuesta de pronunciación que dará lugar a la publicación en 1945 de *La prononciation du français contemporain*.

Su producción de libros, artículos, reseñas y comentarios de otros a sus obras no puede ni siquiera enumerarse aquí. El libro que les muestro y que fue presentado a André Martinet en su octogésimo aniversario recoge en sus 114 páginas únicamente los títulos de tales publicaciones con unas breves páginas introductorias de sus más cercanos colaboradores y amigos, entre quienes destaca su mujer, Jeanne Martinet, también lingüista y admiradora crítica de André

Martinet. Me permito destacar que el libro no contiene más que referencias bibliográficas.

La perspectiva sobre las lenguas de André Martinet le lleva a elaborar una teoría y una metodología lingüística perfectamente coherentes y susceptibles en todo momento de falsación, ya que el respeto a los datos es total. La prueba chomskiana de “**adequacy**” es pues evidente en esta teoría. Se trata del **funcionalismo**: en 1976, André Martinet fue el creador de la *Société Internationale de Linguistique Fonctionnelle/International Society of Functional Linguistics*.

Le temps ne me permet pas de m'arrêter sur les traits essentiels du fonctionnalisme issu de l'enseignement d'André Martinet. L'idée de base est ramassée dans la définition qu'il a donnée d'une langue: “Une langue, écrit-il, dans *Éléments* est un instrument de communication doublement articulé”. Je vais m'occuper dans un instant de la double articulation pour montrer l'énorme importance de cette notion, apparemment banale. Ce que je voudrais souligner d'autre part c'est que le fonctionnalisme adopte un parti pris d'observation fonctionnelle pour identifier son objet. La langue, en effet, n'est pas la succession de sons que peut enregistrer un magnétophone (eta hau, gure artean, azpimarratu behar da: azken urte hauetan, maietofoiaren bidez jasoten diren euskal datuak, datuak besterik ez dira eta, linguistik azaldu behar du zelan elkar erlazionatzen diren hizkuntzaren elementuak izateko). La langue n'est pas, non plus, l'idée qu'a celui qui parle de ce se dans son esprit. La langue, telle qu'elle est cernée par le fonctionnalisme pour en faire un objet d'étude, correspond au comportement linguistique du locuteur dans une situation déterminée et la réaction à son discours de ceux qui l'entourent.

Ikuspegi horren arabera, artikulazio bikoitza funtsezko oinarritzat hartzekoa da. Munduko hizkuntza guztietan, unitate moeta bi bereizten bait dira eta bereizi beha rdira: alde batetik, hiztunok gure inguruan dugun esperientzia aztertu eta ebaki egiten dugu. Eta ebaketa edo taiuketa hori, hizkuntzaz hizkuntza, ezberdina izaten da. Adibidez, anaitasuna adierazteko euskarak lau unitate dituen bitartean (anai/neba/arreba/ahizta) inguruko hizkuntzek bikote bakar bat dute: hermano-/hermana; brother/sister, etab. batak eta besteek egiten duten taiuketa ezberdina delako. Unitate guzti hoiek, lehenbiziko artikulaziotik datoz eta alde bitakoak dira: esangura dute eta ahozkatzen ditugu. Baina bakoitzaren barruan beste motako unitateak aurkitzen dira: *anai* esaten denean ez da *alai* esaten eta, *n* eta *l* bigarren artikularioaren unitateak ditugu: alde bakardunak dira hauek, ahozkatu egiten ditugu baina ez dute esangurarik: bereizgarriak dira. Munduko hizkuntzak ezagutzen ditugun neurrian, pentsa daiteke artikulazio bikoitz hau denei dagokiela.

Zeozar gehiago aipatu behar da funtzionalismoari buruz. Eskola horretarako, hizkuntza baten hiztunok era ezberdinetan erabiltzen dugu hizkuntza bera, hau homogeneoa ez delako. Are gehiago, ez dago hiztunik hizkuntza era bat baino gehiagotan erabiltzen ez duenik, hizkuntza hori bizirik den bitartean, jakina.

Como consecuencia de esta diversidad intralingüística, la noción de *hablante-oyente ideal* es, para el funcionalismo una ficción gratuita, porque la variación lingüística existe y no sólo en diacronía; se da sencillamente en sincronía aunque apenas la percibamos. Toda lengua cambia y tiene que cambiar (a menos que se trate de una lengua muerta) porque los hablantes la vamos haciendo cambiar, simplificándola la mayoría de las veces, para adaptarla a nuestras necesidades. Se

trata de la **sincronía dinámica**, idea clave de esta Escuela, relacionada directamente con la de **economía del lenguaje**. Los hablantes nos movemos entre dos fuerzas antagónicas: por un lado, la necesidad de precisión que exige reflexión para dar con la expresión más justa, por otro, la ley del mínimo esfuerzo. Entre ambas, se sitúa la **economía del lenguaje**.

He dejado para el final la importantísima aportación de André Martinet a la lengua vasca. Ya en 1950, Martinet publicó en *Word* el relevante artículo *De la sonorisation des occlusives initiales en basque*, completado en 1955 con el título: *La reconstruction structurale: les occlusives du basque*. Este estudio ha sentado las bases para la reconstrucción del sistema fonológico primitivo vasco y no necesito subrayar su importancia. Otro artículo que hay que destacar es *Structures en contact: le développement des sifflantes en espagnol* en el que, por primera vez, se demuestra la influencia de la lengua vasca en los cambios fónicos ocurridos en castellano entre los siglos XIV y XVI. Azken hamarkada bi hauetan, euskaraz arduratzen diren atzerritar hizkuntzalariak ugariak direla gauza jakina da. Baina 1950eko urteetako egoera ez zen halakorik. El haberse interesado tan pronto por el euskera es uno de los méritos que pesó ciertamente en Euskaltzaindia al nombrarle *Académico de Honor* en 1979.

Monsieur le Recteur: le temps ne me permet pas de dire tout ce que j'aurais désiré et que vous auriez certainement voulu écouter sur la qualité professionnelle et humaine du professeur Martinet; je n'ai, par exemple, rien rappelé sur ses rapports étroits avec mon directeur de thèse, le professeur Mitxelena. Mes paroles n'ont peut-être pas su tracer une image fidèle d'une vie qui n'a épargné aucun effort pour montrer au monde l'importance de la linguistique, en tant que science qui nous implique tous, puisque c'est par le langage que nous sommes des personnes humaines. Mais je me réjouis du choix que notre Université a déjà fait pour admettre parmi nous le professeur Martinet. Un maître de cette qualité-là ne saurait qu'honorer notre Institution.

Señoras y señores: han oído ustedes una semblanza del profesor Martinet ciertamente incompleta pero que espero les haya permitido felicitarse por la decisión que han tomado nuestras autoridades académicas y cuya confirmación se pide a este Claustro. Por ello, Excmo. y Magfco. Sr. Rector, sólo me queda emplear una fórmula usual en estas ocasiones, pero que dista mucho de ser afirmación retórica: la investidura de André Martinet como Doctor H.C. de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea es, en realidad, un honor para nuestra propia Institución y, a través de ella, para Euskadi.

Hori delata, izendatze hori eskatu egiten dizut eta atseginez beteko duzula ziur nago. Eta zeuri, Martinet irakaslea, hizkuntzalari eta euskararen ikertzaile opsatsua, bihotz-bihotzez zorionak.

ANDRE MARTINET EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK "DOCTOR HONORIS CAUSA" IZENDATUA

Leioa, 1992-X-7

André Martinet

DE LA RECONSTRUCTION PHONOLOGIQUE DU BASQUE ANCIEN

Monsieur le Recteur, Mesdames, Messieurs,

Je me permets de revenir, aujourd'hui, sur un sujet dont j'avais traité, ici même, il y a douze ans: la reconstruction de la phonologie du basque ancien. Relisant le texte de ma conférence, j'ai eu le sentiment que le message n'avait pas dû passer alors, et je vais m'efforcer, aujourd'hui, d'être plus clair.

